

ATXUTXIAMAIIKA AISIALDI TALDEAK HAUR, GURASO ETA HEZITZAILEEN EUSKARAREN ERABILERAN DUEN ERAGINA AZTERTUZ

HIZNET HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA

Asmoz Fundazioa eta UPV/EHU

MAIALEN ARNEDO GAZTELURRUTIA
Tutorea: NAHIA INZA

2014ko uztaila

*Eskerrik asko, bihotzez;
Txino eta Naiarari laguntzagatik,
Atxutxiamaikako hezitzaileei pazientziagatik,
haur eta gurasoei, zuek gabe ez litzatekeelako posible izango
eta Nahia Inzari, bidelagun izan dudalako momenturo.*

Biba zuek!

AURKIBIDEA

1. LABURPENA	3
2. ATARIKOAK	4
2.1. Proiektuaren helburua	4
2.2. Proiektuaren nondik norakoak	4
3. TESTUINGURUA	5
3.1. Elgoibar	5
3.2. Elgoibarko Izarra	8
3.3. Atxutxiamai	10
3.4. Atxutxiamai eta beste hainbat aisialdi eskaintza	15
4. AZTERKETA	19
4.1. Lan metodologia	19
4.2. Inkesta ereduak	22
4.3. Elkarriketarako gidoiak	31
5. EMAITZAK	33
5.1. Haurrak	33
5.2. Gurasoak	40
5.3. Hezitzaileak	49
5.4. Elkarriketak	56
6. ONDORIOAK	57
6.1. Ondorio zehatzak	57
6.2. Ondorio orokorrak	63
7. BIBLIOGRAFIA	65
8. ERANSKINAK	66

1. LABURPENA

Ikerlan hau Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteko *Atxutxiamaika* Sailean kokatzen da, Elgoibarko udalerrian. *Atxutxiamaika* Sailak haur, nerabe, gazte eta hauen gurasoen euskararen erabileran eragitea izanik helburu, xedea betetzen den edo ez aztertzen da ikerlan honetan. Bestalde, aisialdi taldeko hezitzaile direnen usteak bildu dira, hauen erabileran eragiten duen edo ez aztertzeak duen garrantziaz jabeturik. Horretarako, galdetegi eta elkarrizketa bidezko azterketa burutu da, ondorengo emaitza bilketari eta berauen interpretazioari lagundu diona.

Hitz gakoak: *Aisialdia, euskararen erabilera, hartzzaileak, hezitzaileak.*

2. SARRERA

2.1. Proiektuaren helburua

Ikerlan honen xede nagusia Elgoibarko *Atxutxiamaika* Aisialdi Taldeak herritar eta erabiltzaile diren haurren, hauen gurasoen eta hezitzaileen euskararen erabileran duen eragina aztertzea da.

Aisialdi taldean antolaturiko ekintza zein proiektuak, herriko haur, nerabe eta gurasoei zuzendurik daude eta hauen usteak jasotzeaz gain, aisialdi taldean hezitzaile eta koordinatzaile direnenak ere bildu dira.

2.2. Proiektuaren nondik norakoak

Atal honetan ikerlanaren planteamendua azalduko da eta honekin batera, baita berau burutzeko datu bilketa eta hauen interpretazioa nola egin den ere.

Planteamendu orokorraz denaz bezainbatean, esan beharra dago, lan honetan Elgoibarko herriaren ezaugarri soziolinguistikoak aurkeztearekin batera, Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen eta bere baitako *Atxutxiamaika* Aisialdi taldearen inguruko informazioa txertatu dela. Markoa finkaturik, burutu diren inkesta zein elkarrizketetatik bildutako informazio eta datuen emaitzak eta berauen interpretaziotik ateratako ondorioak aurkezten dira.

Datu bilketari dagokionez, bi puntu azpimarratu behar dira. Alde batetik, hezitzaile, haur eta gurasoen iritzia jasotzeko inkestak burutu ditut eta bestetik, elkarrizketak egin dizkiet Elgoibarko Izarrako dinamizatzailari eta *Atxutxiamaika* Saileko arduradunari. Azken hauek transkribatu egin ditut eta eranskinen atalean txertatu.

3. TESTUINGURUA

3.1. Elgoibar

3.1.1. Kokapena eta mugak:



Deba ibarreko euskara, Koldo Zuazo (2006)

Elgoibar Gipuzkoako ipar-mendebaldean kokatzen den herria da, hain zuzen ere, Deba ibarreko Debabarrena eskualdean. Ondorengo herrieekin egiten du muga: iparraldean, Mendaro eta Debarekin; ekialdean, Azkoitiarekin; hegoaldean, Eibar eta Soraluzerekin; eta mendebaldean, Etxebarri eta Markinarekin.

Ibar berean daude Eibar, Soraluze, Elgoibar, Mendaro eta Deba, Deba ibaiaren igarobidean. Azkoitia eta Etxebarri ostera, beste ibar banatan daude, mendate bana tartean dutela. Elgoibarrek Deba ibarreko herriekin harreman komertzial handiagoa du beste ibarretakoekin baino eta hau, neurri batean, azaldutako egoera orografiko horren ondorioz ere bada. Honek gainera, eragina izango du hizkuntza-kontuetan ere.

3.1.2. Datu soziolinguistikoak:

Elgoibarrek, 2011. urtean egindako azken erroldaren arabera, 11.310 biztanle ditu (Eustat, 2011). Aurreko atalean udalerrian inguruko datu demografikoak aurkeztu dira eta oraingo honetan, euskararen erabilerari egingo zaio erreferentzia.

Honi dagokionez, Elgoibarko Udaleko Euskara Batzordeak berau neurtu zuen 2003. urtetik 2010. urtera arte (2009. urtea salbuespena litzateke ez baitago urte honetako daturik) eta jarraian azkeneko bi neurketetan jasotako emaitzak ikusiko ditugu.

Elgoibarko Udalaren Euskara Batzordeak egindako azken kale-neurketaren (2010) arabera, herri honetako biztanleriaren % 41,58ak hitz egiten du euskaraz. Dena dela, ezin genezake aipatu gabe utzi, azterketa hau egiteko ez dela elgoibartar guztien hizkuntza jokaera neurtu, 6.385 hiztunena baino.

Hurrengo taulan ikus genitzake 2010. urteko datuak 2008ekin alderatuta:

PERTSONAK	EUSKARAZ	%
6.385	2.655	41,58 (2008an 39,57)

(Iturria: Euskararen erabilera Elgoibarko kaleetan, 2010:1)

Adinaren arabera ere burutu ziren zenbait azterketa eta hauexek izan ziren jasotako emaitzak:

Euskaraz	GUZTIRA	HAURRAK	GAZTEAK	HELDUAK	ADINEKOAK
%	% 41,58	%56,5	% 48,1	% 38,16	% 32

(Iturria: Euskararen erabilera Elgoibarko kaleetan, 2010:1)

Ikus genezakeen modura haurrak dira adin-tarte guztiak aintzakotzat hartuta euskara gehien darabiltenak %56,5. Ikerlan honetan *Atxutxiamaika* Aisialdi Taldeak haur, guraso eta hezitzaileen euskararen erabilera duen eragina aztertzen dela kontuan harturik, garrantzitsua da datu hau, helduenekin batera (%38,16), kontuan hartzea. Izan ere, gerora eskainiko diren emaitzak interpretatzerako orduan ezinbestekoa izango da.

Honi jarraiki, giro ezberdinetan euskararen erabilera zenbaterainokoa den ikustea ez legoke gaizki, adin tarte bakoitzak, lekuan lekuko erabilera izan ohi baitu maiz. Informazio honen garrantziaz jabeturik, Elgoibarko Euskara Batzordeak datuok jaso zituen 2010eko kale neurketan:

Euskaraz %	IKASLEEN IRTEERA	JOLASLEKUAK	EROSKETA GIROA	FAMILIA GIROA	GAZTE GIROA	TXIKITEOA
	45,8	52,17	35,63	40	36,88	%39

(Iturria: Euskararen erabilera Elgoibarko kaleetan, 2010:1)

Zenbait giro aztertzen dira beraz, baina azterketa honetan txikiteoa edota erosketa giroak ez dira aintzakotzat hartuko eta beraz, gainontzekoei erreparatuko zaie.

Emaitzak kontrastaturik, ezin uka genezake, euskara gehien jolaslekuetan, ikasleen irteeretan eta familia giroan antzematen direla. Azken honi dagokionean, hala ere, 2008ko neurketako datuekin alderatuz gero erabilera apur bat jaitsi dela antzeman daiteke:

Euskaraz %	IKASLEEN IRTEERA	JOLASLEKUAK	EROSKETA GIROA	FAMILIA GIROA	GAZTE GIROA	TXIKITEOA
	39,7	53,06	22,05	43,64	36,88	%42,18

(Iturria: Euskararen erabilera Elgoibarko kaleetan, 2008:1)

Familia giroari dagokionez, beste zehaztapen bat egin beharra dago. Nahiz eta erabilera orokorra pixka bat jaitsi den, hau adinekoengatik izan da, berauen erabilerak behera egin baitu. Dena dela, azpimarratu beharra dago, eremu honetan, haur eta gazteen erabilera igo egin dela.

Ikasleak ikastetxetik irteterakoan darabilten euskarari dagokionean ere antzera gertatu da, izan ere, erabilera 39,7tik (Elgoibarko Udalaren Euskara Batzordeak, 2008) 45,8ra (Elgoibarko Udalaren Euskara Batzordeak, 2010) igo da.

Bukatzeko, ikastetxe barruko egoeran so puntua jarritz, jolaslekuetan erabilera mantendu egin da datuak aurreko neurketakoekin alderatuz gero eta baita gazte giroan ere.

Hortaz, badirudi euskararen erabilerak, oro har, gora egin duela Elgoibarren, nahiz eta ez den gorakada nabarmena izan. Haurren kasuari erreparatuta ere adin-tarte hau da euskara gehien erabiltzen duena eta horren adierazle dira, besteak beste, jolaslekuetan, familia giroan eta ikastetxeetako irteeretan jasotako datuak.

3.2. Elgoibarko Izarra

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak 1963ko martxoan sortu zen. Sorkuntza prozesu honetan, ezinbestean, hiru izen ekarri behar ditugu gogora: Felix Etxeberria, Jesus Larrañaga eta Sabin Osoro. Hiru elgoibartar hauek, herriko euskara sustatzeko ahaleginetan, elkartea sortu zuten eta berehala, 1.400 bazkide¹ batu zitzaizkien. Egun bazkide gutxiago ditu Elgoibarko Izarrak, 600, hain zuzen ere.

Bi etapa nabarmendu behar dira elkartearen ibilbideari dagokionean. Lehenengoa, 1963tik 1990era artekoa eta bigarrena oster, 1991tik gaur artekoa.

Lehenengo etapan, Kultur Elkartearen helburua, gehienbat, 1962. urtean sortutako Ikastolari laguntza ematea zen. Dena dela, urteak aurrea joan ahala, Ikastola indarra hartuz joan zen eta hau horrela izanik, *Elgoibarko Izarrak* bere arduren poltsa handitu zuen. Orduan bide berri bat urratzeari ekin zion elkarteak eta herrian euskara eta euskal kultura indartzeko lanetan hasi zen.

1963tik 1980era arteko etapa oso emankorra izan zen eta zenbait proiektu jarri ziren martxan, hala nola:

¹ Aipatu beharra dago, garai honetan, Ikastolan matrikulatutako haurren gurasoak bazkide izatera derrigortuta zeudela.

- a) Ikastola
- b) Gau-eskola
- c) Euskal dantzak
- d) Txistua
- e) Odeiko jaialdiak
- f) Bertsolaritza
- g) Aubixa aterpetxea
- h) Udalaren Euskara Batzordea
- i) Mendi irteerak
- j) Balleta
- k) Ingelesa
- l) Berbenak
- m) Danborrada eta karrozak
- n) Txitxilibakio aldizkaria
- o) Motibazio jarduerak
- p) Diru kontuak

Baina emankortasun honek ez zuen 80ko hamarkadan iraun eta elkarteak pixkanaka ahulduz joan zen. Gainbehera honi aurre eginez ordea, hiru bazkidek Elgoibarko Izarrari eustea erabaki zuten eta hala, 1990. urtean desagertzekotan egon zen elkarteak berpizkundea jasan zuen. Hementxe hasi zen bigarren etapa, xedea lehenengoko bera zelarik, hau da, Elgoibarko euskararen eta euskal kulturaren eragitea eta berau sustatzea. Hau bete ahal izateko, Elgoibarko Izarrak batez ere, elgoibartarron artean euskararen erabilera sustatzeko proiektuak prestatzen ditu egun. Horien artean *Atxutxiamaika* Saila dago. Honen baitan, era berean, proiektu ezberdinak barnebiltzen dira: *Atxutxiamaika* aisialdiko eskaintza (0-12 urte bitarteko haurrei zuzendurikoa), Ludoteka (0tik 12 urtera arteko haurrei bideratutakoa), Gaztelekua (12-18 urte bitarteko nerabe eta gaztetxoei zuzendurikoa), *Beinke* bertso eskola (5etik 9 urtera bitarteko haurrentzako proiektua) eta herriko ikastetxeetan eskainitako “zergatik ez?” motibazio saioak. Azken hauek haur eta gazteen euskararen erabileran eragiteko asmoz eskaintzen dira.

Ikerlan honen helburua, dena dela, *Atxutxiamaika* aisialdi taldeak (aisialdiko eskaintza egiten duenak) erabiltzaileen, hauen gurasoen eta taldeko hezitzaile direnen

euskararen erabileran eragiten duen eta hala balitz zein neurritan aztertzea da. Hau horrela, ondorengo atalean, aisialdi taldea izango dugu hizpide, egitasmo honen inguruko zenbait aspektu ezagutuko ditugularik; zergatik eta zertarako sortu zen, zeini zuzendurik dagoen, zein den bere izaera eta zeintzuk bere helburuak.

3.3. *Atxutxiamai*ka

3.3.1. Zergatik eta zertarako?

*Atxutxiamai*ka 1995. urtean sortu zen Elgoibarko aisialdi talde moduan. Bere helburuak lortzeko (ikus. *Helburuak* atala) martxan jarritako proiektu bateratuen egitura da, *Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen* barruan berezko izaera duena. Talde erantzukizuna oinarri izanda, helburu bateratua aurrera eramateko eta elkarlanean jarduteko helburuarekin sortu zen 90. hamarkadan. Aipaturiko helburu nagusi hori ondorengo litzateke: Elgoibarko haur, nerabe eta gazte guztien aisialdi hezitzailean oinarrituriko erreferente euskalduna izatea, euskara erabiltzen duen eta euskaraz bizi den sare aktibo batean.

Hortaz, taldeak bi ardatz nagusiren baitan egiten du lan. Alde batetik, euskara eta bestetik oster, aisialdia. Baina berauek ez ditu banakako bide gisara ulertzen, bateraturik baino. Hau honela, *Atxutxiamai*ka Aisialdi Taldeak aisialdirako eskaintza proiektuak eramaten ditu aurrera esku hartze euskalduna oinarri izanik eta modu honetan, euskararen erabilera sustatzeko prozesuak martxan jarri. Era berean, lehen aipaturiko harreman sarea euskalduntzeko lanketaren baitan kokatu beharrean geundeke, besteak beste, haxe baita zehar-lerroetako bat.

Aisialdiaren unibertsoan dena den, zenbait helburu lantzeak ere izango du garrantzirik eta hortaz, helburu hezitzaileak lantzeko bidea jorratzen du taldeak.

3.3.2. Hartzaileak:

Atxutxiamaikaren baitan bi hartzaile-multzo bereiz genitzake²:

1. **Haurrak:** 0-12 urte bitartekoak.
2. **Zerbitzugintzako hartzaileak:** kasu honetan, haurrak, nerabeak, gurasoak edota adinekoak izan daitezke.

Bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuz gero, egitekoak eta betekizunak ezberdinak dira. Ikus ditzagun:

Haurrak	Zerbitzugintza
Berezko izaera du eta egitasmo desberdinak barnebiltzen ditu. Helburua herriko haur eta nerabeen erreferente euskalduna izatea da. Eskaintza horren bidez euskara erabili eta euskaraz bizi den sare aktiboa garatu nahi dugu, horretarako tokian tokiko haur eta nerabeengan sustapena landuz.	Zerbitzugintzan aritzeak zeharkako sustapena lantzeko aukera ematen dio eta horren helburu nagusia kudeatzen dituen zerbitzu horietan, ahal den heinean, Sailaren izaera islatu eta sustatzea da.

3.3.3. *Atxutxiamaikaren* egitasmoak:

Aurrez aipaturiko helburuak erdiesteko, *Atxutxiamaikak* hainbat estrategia ditu finkaturik. Horien artean daude egitasmoak, zeinak alde batetik, iraunkorrak diren, hau da, urtetik urtera mantentzen diren, eta bestetik oster, elkarren artean jarraikortasun bat mantentzen duten. Hau da, 0-12 urtera bitarteko haurrentzako eskaintza egiten den arren, adinaren arabera ekintzak antolatzen dira eta bestalde, hartzaile hauek, oro har, saileko beste proiektu batzuetan parte hartzen jarraitzen dute gerora, esate baterako,

² Gazteekin ere lanean dihardu *Atxutxiamaikak*. Aisiaren ziklo osoa sortzeak garrantzia handia duela sinisten du, horrek bermatuko baitio hurrengo belaunaldiak taldearen eragile zuzenak izatea.

Gaztelekuan. Hala izanik, egitasmo hauek estrategia garrantzitsu bilakatu dira helburuak lortze bidean.

Egitasmoen adibideak aipatze aldera, ondokoen inguruan jardungo dugu jarraian: *Kiribilka* euskara transmisio programa eta udalekuak, neguko txoko edota egonaldiak eta udaberrian (Pazko Astea) eginikoak. Azter ditzagun zehatzago:

- *Kiribil*: Elgoibarko familia-giroa euskaldundu eta transmisioan eragiteko programa berezia da. Proiektua 2003. urtean hasi zen martxan eta egun indarrean dago oraindik.

2-6 urte bitarteko haurrei eta hauen gurasoei zuzendurikoa da eta helburua, urteko hainbat ostiral arratsaldetan egiten diren plazako ekintzen³ bitartez, familia bidezko euskara transmisioan eragitea da kantuen, jolasen... bitartez. Plazako ekintza hauetan, oro har, *Kiribilka* proiektuko maskotak (Kiribil-ek) eta hainbat hezitzailek (oro har, lau izaten dira) hartzen dute parte.

- Udalekuak, neguko txoko edota egonaldiak eta udaberrikoak: Hiru hauetan bi multzo bereizi behar dira; alde batetik, egonaldi irekiak deritzenak eta bestetik, itxiak. Irekiak 0-8 urtera bitarteko haurrei zuzendurikoak dira eta itxiak oster, 8-12 urte artekoak. Beraz, adin-tartea kontuan harturik, egonaldi mota ezberdinak eramaten dira aurrera.

Esandakoaren bidetik beraz, aisialdi taldearen hartzaile direnek haur direnetik eta ondoko urteetan zehar, egitasmo ezberdinetan parte hartzeko aukera izango dute, azpimarratu berri den jarraikortasunaren ildotik. Modu honetan, *Atxutxiamaiak* esku hartzearen koherentzia mantentzen du.

Proiektuaren hasieran esan bezala, *Atxutxiamaiak Elgoibarko Izarra* elkartearen barnean kokaturiko egitasmoa da eta beraz, bat egiten du bai elkarteko izaerarekin eta baita markoarekin ere; markoa diogunean, euskararen erabileraren normalizazioan eragiteko markoari egiten zaiolarik erreferentzia.

³ Plazako ekintzak: Elgoibarko plaza nagusian egiten diren ekintzak.

3.3.4. Izaera:

Aisialdi taldeak asanblada bidez funtzionatzen du. Bertan hezitzaileek hartzen dute parte, gehiengoan elgoibartarrak direnak.

Asanblada hauetan zenbait gai lantzen dira, hala nola: ekintzen programaketa, Saileko egitasmoen inguruko gaiak, proposamen berriak, etab. Era berean, aipatu beharra dago, *Elgoibarko Izarra* eta gazteen arteko hartu emana sendotzeko baliagarri dela.

Lan talde honen bitartez, *Atxutxiamakak* bi helburu erdietsi nahi ditugu, hauexek, hain zuzen ere:

- a) Gazteen harreman sarea euskaldundu eta hizkuntza ohituretan eragitea.
- b) Ekimenetan kolaboratzaile, laguntzaile edo antolatzaile izatea sustatzea, bestek beste, hezitzaile lanak burutuz, jarduerak landuz edota ekintza ezberdinen antolatzaile izanik eta udalekuetan koordinatzaile lanetan jardunaz.

Modu honetan, aisialdi taldeak bere helburuetako bat lortzen du: 16-25 urte bitarteko herriko gazteek euskararen erabilera aktibo izatea eta beste gaztetxoentzako eredu izatea.

Gorago aipaturiko Elgoibarko Izarra elkartearen helburuak birgogoratuz, ikus genezake, bat datozela. Hala, *Atxutxiamakak* berak, elkartearen izaerari eta helburuei jarraiki, Elgoibarko gaztetxoek euskararen erabilera suspertzeko ahalegina egingo du, herriko eragile bilakatuko delarik.

Bestalde, aipatu beharra dago, *Atxutxiamakak* garrantzia handia ematen diola talde izaerari. Hau horrela izanik, hezitzailez zein koordinatzaileen arteko harremana sustatzeko ahalegina egiten da, harik eta oinarrizko bilakatzen delarik. Honen giblean, giroan, lanean eta langile arteko konfiantzan eragiteko asmoa dago. Horretarako ezinbestekoak dira urtean zehar egiten diren asanblada zein asteburu pasak. Azken hauek urtean hiru aldiz egiten dira (lau hilabete behin) eta hezitzaileen arteko harremanetan eta konfiantzan eragiteaz gain, urte osoko programaketak burutu eta ebaluazioak egiteko baliatzen dira. Bestalde, asanbladak hilero egiten dira. Dena dela, behar izanez gero, asanblada deialdia egiten da eta koordinatzaileak betetzen du funtzio hori.

Esandakoaz gain, azpimarratu beharra dago, proiektu bakoitzak bere helburu eta lan metodologia zehatzak izan arren, *Atxutxiamaikako* hezitzaile guztiek norabide bera jarraitzea (estrategia berdinak, helburuak, etab.) ezinbestekotzat jotzen dela aisialdi taldean.

3.3.5. Atxutxiamaikaren helburua:

Xede nagusia saileko egitasmoetan identifikatzen diren eginbeharrak edo proposamenak egitea, lantzea eta garatzea da. Helburu orokorra kontuan izanda, honako azpi-helburu hauek zehazten dira⁴:

- o Aisialdi taldean parte hartzen duten gazte zein hezitzaileen adierazpenak eta ekimenak sustatzea.
- o Gazte horien parte hartzea sustatzea egitasmoan.
- o Elkartean gazteen partaidetza indartzea.
- o Egitasmoan antolatzen diren jarduerak proiektu publikora bideratzea.
- o Aisialdi taldean parte hartzen duten gazteek objektu izatetik subjektu izateko bidea egitea.
- o Foroan parte hartzen duten gazteei formazio iraunkorra eskaintzea.
- o Herriko beste elkarte eta eragileekin harremana lantzea eta sustatzea.
- o Herriko gazte gehiagok foroan parte hartzeko estrategiak diseinatzea.

- **Koordinatzaile eta hezitzaileen ardura eta funtzioak⁵:**

Koordinatzailea	Hezitzaileak
• Bilera deialdiak egin, gai zerrenda prestatu, akta jaso eta proposamenak elkartera bideratzeko ardura. • Foroaren dinamizazioaren ardura. • Egitasmoan zehazturiko gai bakoitza	1. Egitasmoaren gaineko gaiak eztabaidatu, landu eta aurkeztu. 2. Ekintzak aurrera eramatea. 3. Herriko beste eragileekin inplikazioa topatzea.

⁴ Zuzenean harturik *Aisia egitasmoa 2014* dokumentutik.

⁵ *Aisia egitasmoa 2014* dokumentuan jasotakoak txertatu dira lan honetan.

Saileko egitasmoaren urratsak jarraitzen direla bermatzea eta hori ziurtatzea. • Foroaren kudeaketaren ardura izango du, Elkarateak/Atxutxiamaikak horren gaineko informazioa izanik. • Sailaren barne dauden egitasmo ezberdinen arteko komunikazioa eta elkarlana sustatu eta horretarako baliabideak jartzea. • Sailaren egitasmo guztiak norabide berdinean lan egin dezaten bermatzea. • Hezitzaileen harreman sarea handitzea. • Formazio beharrak identifikatu eta erantzuna ematea.	4. Egitasmoa aurrera eramateko gazte guztien inplikazioa topatzea. 5. Egitasmoan sortzen diren beharrak eta asmoak foroan eta elkartean islatzea. 6. Saileko bileretan parte hartzea.
--	--

3.4. Atxutxiamaika eta beste hainbat aisialdi eskaintza

Elgoibarren, *Atxutxiamaikaz* gain, 12 urtera arteko haur eta gaztetxoek beste hainbat aisialdi eskaintza dituzte. Ikasturteak dirauen bitartean, esate baterako, eskola arteko kirolean, euskal dantzetan, dantza modernoan, ballet-ean, musika eskolan, kirol ezberdinetan (futbola, eskubaloia, karatea, esku pilota...) pintura tailerretan eta beste hainbat tokitan eman dezakete izena herriko haur eta gaztetxoek.

Udaldian, bestalde, hemen aztergai dugun aisialdi talde honekin batera, aipatzekoa da kirol udalekuen kasua. Azken honi dagokionez, aipatu beharra dago, hartzaile ugari izaten dituela urtero eta zerrendaturikoen artean, berau dela, *Atxutxiamaikarekin* batera udaldian hartzaile gehien izaten dituen. Aurten, adibidez, 180 haur eta gaztetxok eman dute izena egitasmo honetan⁶. *Atxutxiamaikak*, oro har, hartzaile gehiago izaten dituen arren (aurtengo datuei erreparatuta 243 izan dira, hain zuzen ere), ezin genezake albo batera utzi, kirol udalekuen proiektua.

⁶ Datuak iturri honetatik hartuak: BARREN astekaria: <http://www.elgoibarren.net/content/view/5131/11/> [Kontsulta data: 2014/07/15]

Bi egitasmoak alderatuta, bereizketa nabarmen bat egin daiteke. Izan ere, biek 12 urtera arteko haurrentzako aisialdi eskaintza egiten duten arren, txikienak (9 urtera artekoak), gehienbat, *Atxutxiamaikaren* aldeko hautua egiten dute eta halaxe erakusten digute datuek⁷. Bestalde, 9-12 urte bitartekoei dagokienez, kirol udalekuek arrera handiagoa izan ohi dute.

Aipatu berri denak, eragina dauka noski, esku artean duzun ikerketa honetan. *Atxutxiamaikaren* hartzaileen artean, oro har, 9 urtera arteko haurrak daudela kontuan harturik eta 12 urtera artekoak oso gutxi direla aitorturik, azterketa honetan eginiko inkesten artean, 4-9 urte bitarteko haurren erantzunak bildu dira.

Esandakoari jarraiki, beraz, bi zehaztapen egin beharko genituzke. Alde batetik, 0-4 urte bitarteko haurrei ez zaie inkesta pasa adinez txikiegiak direnaren irudipena dela medio. Bestetik, nagusien datuak bi arrazoiengatik ez dira azterketan kontuan hartu: oso gutxi direlako eta hauekin kontaktuan jartzeko zailtasunengatik.

Atal honekin bukatze aldera, hasieran aipaturiko egitasmoen hizkuntza errealitateari egingo zaio erreferentzia. Berau aztertzen duen ikerketarik ez dagoenez, pertzepzioetan oinarrituriko informazioa izango da jarraian eskainiko dena; ez du izango beraz, oinarri zientifikorik.

Eskola arteko kirolek hasita, bizpahiru zehaztapen egin beharrean geundeke. Izan ere, hasteko eta behin, gogora ekarri beharko genuke, egitasmo hau haurren gurasoak eramaten dutela aurrera eta hauen artean, hizkuntza profil ezberdinekin egin genezakeela topo. Kasu batzuetan, gurasoak eurak dira entrenatzaile papera betetzen dutenak eta haurren prestaketa saioetan gidaritza eta dinamizazio lanak egiten dituztenak. Kasuan kasuko pertsonaren arabera da beraz, kirol hauek praktikatzeko haurrek entrenatzailearekin hitz egiteko darabilten hizkuntzaren erabilera, beste zenbait faktoreekin batera, noski. Gurasoak beharrean, herriko gazteren batek hartzen duenean entrenatzaile izateko ardura, aukera gehiago izan ohi dira (ia ehuneko ehunetan, esan genezake) euskara izan dadin ahoz ahoko hizkuntza.

Partiduetan edota eskola arteko ekintzetan, euskaraz burutzen dira jarduerak guztiak eta arbitro, epaile... papera betetzen duten guztiak euskaldunak izan ohi dira.

⁷ Datuak iturri honetatik jasoak: *BARREN* astekaria: <http://www.elgoibarren.net/content/view/5123/11/> [Kontsulta data: 2014/07/15]

Beraz, prestaketa saioetan kasuaren araberrako hizkuntzaren erabilera egiten dela ondoriozta genezake eta ondoren, larunbat goizetako partidetan, euskara izan ohi dela nagusi, salbuespenak salbuespen (ikustera doazen gurasoak, lagunak, ikaskideak, etab. tarteko direlarik).

Eskola arteko kirola izan dugu hizpide aurreko lerroetan eta ondorengoetan, herriko kirol klubeng inguruan jardungo dugu. Elgoibarren, besteak beste, Sanlo Eskubaloia Kirol Taldea, Club Deportivo Elgoibar, Elgoibarko Atletismo Taldea, Lagunak Pilota Elkartea eta Elgoibarko Xake Taldea daude. Guztietan, entrenatzaile moduan jarduten dutenak klub, elkarte edota talde bakoitzeko zuzendaritza taldeak aukeratzen du eta beraz, bakoitzaren hizkuntza profila kasuan kasuko entrenatzailearen araberrakoa da. Batzuetan, entrenatzaileak euskaldunak izaten dira eta beste batzuetan aldiz, euskararen ezagutzarik ez dutenak. Elkarte edota klubeng hizkuntza errealitateari dagokionez, beraz, ezin daiteke ezer zehatzik azpimarratu, kasuan kasuko egoeraren araberrakoa izan ohi baita. Gaztetxoek entrenamenduetan, partiduetan... darabilten hizkuntzari erreferentzia egin beharko bagenio oster (eta berriro ere pertzepzioak izango dira oinarri), denetarik aurki genezakeela esan beharko genuke. Izan ere, talde edota klub hauetan, jada nerabe edota gazte diren jokalariek daude eta Elgoibarko euskararen erabilera erreparatu besterik ez dago, euskara zein gaztelania bihar erabiltzen direla ikusteko.

Kirolariez gain, musikariak ere badira Elgoibarren eta oro har, solfeoko klaseak jasotzeko edota instrumenturen bat jotzen ikasteko, herriko gaztetxoak musika eskolara joaten dira. Bertan, eskolak euskaraz jasotzen dira, administratitzan denek euskaraz dakite eta baita irakasleek ere. Hortaz, bertan daudelarik, ikasleek euskaraz berba egiteko aukera daukate. Baina ezin genezake albo batera utzi, eskolak euskaraz jaso arren eta euskaraz hitz egiteko aukera izan arren, haur eta gaztetxoek hautu hori hartzen dutenik. Lehen esan bezala, nire pertzepzioetatik abiatutik, esango nuke, txikieng, hau da, 10 urtera artekoek, oro har, euskaraz egiten dutela nagusiki. Hortik aurrerako nerabeek oster, gaztelaniaz ere jarduten dutela esango nuke.

Euskal dantzei dagokionez, irakasle gisa aritzen diren guztiak euskaldunak direla azpimarratu beharra dago. Gainera, irakasle hauek Elgoibarko *Haritz Dantzari Taldeko* kide ere badira eta talde honek euskaraz burutzen ditu bere ekintza guztiak. Eskolak euskaraz ematen dira eta bertara joaten diren haur, nerabe eta gaztetxoek, oro har,

euskaraz mintzo direla saioetan. Hemendik kanpoko erabileraz denaz bezainbatean ostera, ezin ezer zehaztu.

Aurrekoez gain, bestelako dantzak ere irakasten dira Elgoibarren. Hauen errealitateari dagokionez ostera, ezin nezake ezer esan, ez baitut ezagutzen.

Atxutxiamaiika Aisialdi Taldea eta orain arte aipaturiko egitasmoak kontuan izanik, ondoriozta genezake, Elgoibarko haur, nerabe eta gazteek duten aisialdi eskaintza ez dela euskalduna %100ean. Kasu batzuetan, euskararen erabilera bermaturik dagoen talde, ekintza eta abarretan parte hartzeko aukera dute, baina beste hainbatetan, ez da gauza bera gertatzen. Honi, dena den, erabiltzaileen beraien hizkuntza erabilera gaineratu beharko geniezaioke, euskaraz jarduteko aukera izan arren, azken batean, norberaren esku geratzen baita hautu hori egitea.

Lehen aipaturiko ideia bat berriro gogora ekarriz, esango nuke, Elgoibarren, nerabe eta gazteek euskaraz bizitzeko aukera handiak dituztela (ez %100ean), baina oro har, erabilera datuek erakusten digutenez, euskara eta gaztelaniak norgehiagokan jarraitzen dute. Haurren kasua ezberdina denaren irudipena daukat ordea, hauei dagokienez, euskara gehiago erabiltzen baitute.

Beraz, *Atxutxiamaikarekin* batera aurrez aipaturiko beste hainbat aisialdi eskaintza dituzte herriko haur, nerabe eta gazteek. Hauetan bizi den hizkuntza errealitatea nolakoa den ikusi dugu eta jarraian, *Atxutxiamaikari* dagokiona aztertzen ahaleginduko gara.

4. AZTERKETA

4.1. Lan metodologia

Hasteko eta behin, lan honetan aurkeztu bezala, lortu nahi den helburua oinarri harturik eta berau kokatzen den eremua Elgoibar, are *Atxutxiamaika* bera dela jakinik, bataren eta bestearen errealitateari erreparatu zaio. Hala, hainbat ezaugarri eta informazio bildu da ikerketari ekin aurretik. Hemendik bildutako informazioarekin, finkatutako helburua lortzeko, azterketa burutzeko modurik egokienaz hausnartzea ezinbestekoa izan da.

Ondorioa, azterketa kuantitatibo eta kualitatiboaren aldeko apustua egitea izan da. Horrela, alde batetik, *Atxutxiamaikako* haur, guraso eta hezitzaile direnei inkestak pasa zaizkie. Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak eskuragarri utzitako dokumentuetan, urtean zehar *Atxutxiamaikak* antolaturiko ekintzetan izandako erabiltzaile kopuruak jasotzen dira. Honatx, besteak beste, azken urteko datuak biltzen dituen:

EKINTZA	Ume kopurua		Hezitzaile kopurua	Aisialdi orduak
	Neskak	Mutilak		
HH eta LH 1-2				
Udaberri festa	60	35	7	3
Udaberriko txokoak	27	24	6	28
Udako txokoak	95	135	26	100
Udazken festa	45	30	7	3
Neguko txokoak	16	12	4	32
Denera	243	236	50	166

LH 3-6				
Udaberriko egonaldia	19	18	4	40
Udako egonaldia	0	0	0	0
Neguko ekintzak	44	48	5	24
Denera	63	66	9	64
Besterik: Adin tarte desberdinei zuzendutako ekintzak				
San Fermin txiki eguna	200	130	6	5
Udaldiko erakusketa	64	75	6	8
Jostailuen erakusketa	35	40	6	5
Olentzero eta Mari Domingi	250	250	35	7
Denera	549	495	47	20

GUZTIRA	855	797	112	255
----------------	------------	------------	------------	------------

Laburbilduz, 1653 ume eta gurasok parte hartu dute ekintzetan; nahiz eta ekintza batzuetako parte hartzea kontaezina izan, eta 255 aisialdi ordu baino gehiago eskaini diren. Nahiz eta 1653ko kopurua aipatu, azpimarratu beharra dago, erabiltzaileak errepikatu egiten dira ekintzarik gehienetan eta beraz, kopuru orokorre (ikus. *denera* taulan bertan; berdez) erreparatu beharko geniezaieke.

Hala, ikus genezake, bi adin-tarteak kontuan harturik, 300 haur inguru liratekeela *Atxutxiamaikako* urtean zeharreko erabiltzaile. Hau dela eta, kopuru hau

oinarri harturik, lagina %10ekoa izan da eta beraz, 30 hurrei pasa zaie inkesta. Modu berean, 30 gurasok bete dute beraiei zuzenduriko galdetegia.

Bestalde, bi zehaztapen egin beharko lirateke. Lehenengoa, neska eta mutilen parte hartzeari erreparatuta, berau, nahiko orekatua dela eta horrexegatik, inkestak betetzerako orduan, %50a neskek bete dutela eta beste erdia mutilek. Bigarrenkoa, bigarren adin-tarteko datuek erakutsi bezala, erabiltzaile kopurua nahiko baxua dela eta arrazoi hau dela medio, ikerlan hau 9 urtera arteko haurren erantzunetan oinarritu dela.

Galdetegiez gain, *Atxutxiamaikako* arduradunari eta Elgoibarko Izarrako dinamizatzaleari elkarrizketa bana egin zaizkie.

Galdera guztiak ikerketa helburuari begirakoak izan dira, hau da, *Atxutxiamaikak* hartzaile dituen haur, hauen guraso eta taldeko hezitzaile direnen euskararen erabileran eragiten ote duen aztertzea.

Inkestei dagokienez, aipatu beharra dago, galdera guztietatik ateratako emaitzak grafikoetan bildu direla, zeinak emaitzen atalean (ikus. 4. *Atala*) bildu diren. Hau egin ostean, emaitzen interpretazioa egin hainbat ondorio bildu dira (ikus. 5. *Atala*).

Jarraian, azterketaren parte bat burutzeko (inkestena, hain zuzen ere) erabilitako inkesta ereduak aurkezten dira.

4.2. Inkesta ereduak

4.2.1. Haurrek betetako inkesta

1. **Sexua:** neska ☐ mutila ☐

2. **Adina, zenbat urte dituzu?** _____

3. **Atxutxiamaiakako zein ekintzatan hartzen duzu parte?**

Udalekuetan 	Neguko/ Udaberriko txokoetan 	Plazako ekintzetan 	Irteeretan 	Zerbitzuetan (ate irekiak, zaintzak, etab.)	Guztietan, salbuespenak salbuespen

4. **Zer moduz pasatzen duzu Atxutxiamaiakan?**

ONDO

NORMAL

GAIZKI


☐

☐

☐

5. **Atxutxiamaiatik zer gustatzen zaizu GEHIEN?** _____



6. **Atxutxiamaiatik zer EZ zaizu gustatzen?** _____



7. **Atxutxiamaiatik zer ALDATU zenuke?** _____

8. ETXEAN nola hitz egiten duzu ?

Euskaraz ☐
Gaztelaniaz ☐
Beste hizkuntza batean ☐



9. ESKOLAN nola hitz egiten duzu ?

Euskaraz ☐
Gaztelaniaz ☐
Beste hizkuntza batean ☐



10. LAGUNEKIN PLAZAN nola hitz egiten duzu?

Euskaraz ☐
Gaztelaniaz ☐
Beste hizkuntza batean ☐



11. ATXUTXIAMAIKAN zaudenean, nola hitz egiten duzu?

-Lagunekin

Euskaraz ☐ Gaztelaniaz ☐ Beste hizkuntza batean ☐

-Hezitzaileekin

Euskaraz ☐ Gaztekuabuz ☐ Beste hizkuntza batean ☐

12. Atxutxiamaikan zabiltzanetik zenbat egiten duzu euskaraz?

Gehiago ☐ Berdin ☐ Gutxiago ☐
+ = -

4.2.2. Gurasoek betetako inkesta

1. Zein adin-tartetan dago (edo daude) zure seme-alaba(k)?

1-3	4-6	7-9	10-12	12 +
-----	-----	-----	-------	------

2. Udalekuetara joaten al d(ir)a zure seme-alaba(k)?

Bai	Ez	Batzuetan
-----	----	-----------

3. Eta urtean zehar Atxutxiamaikak antolaturiko gainontzeko beste ekintzetara joaten al d(ir)a?

	Bai	Ez	Batzuetan
<i>Neguko txokoak</i>			
<i>Neguko irteerak</i>			
<i>Udaberriko txokoak</i>			
<i>Udaberriko egonaldiak</i>			
<i>Plazako ekintzak</i>			
<i>Familia irteerak</i>			

4. Zuen seme-alaba(k) Atxutxiamaikan izena emateko arrazoia zein da?

Haurrek ondo pasatzea	Nire lanagatik joaten dira	Euskaraz aritu dadin	Beste arrazoiren bat? Hala bada, zehaztu esazu, mesedez

5. Zure seme-alab(ar)en ama hizkuntza euskara al da?

Bai	Ez
-----	----

6. Zure seme-alabak (seme-alabek) euskaraz hitz egiteko ohitura du(te)?

Inoiz ez	1	2	3	4	5	Beti
----------	---	---	---	---	---	------

7. Etxean euskaraz hitz egiteko ohiturarik ba al daukazue?

Inoiz ez	1	2	3	4	5	Beti
----------	---	---	---	---	---	------

8. Atxutxiamaiak eragiten al du zure seme-alab(ar)en euskararen erabileran?

Ezer ez	1	2	3	4	5	Asko
---------	---	---	---	---	---	------

9. Eta gurasoen euskararen erabileran?

Ezer ez	1	2	3	4	5	Asko
---------	---	---	---	---	---	------

10. Atxutxiamaiak antolaturiko ekintzak euskararen erabileran eragiteko baliagarri direla uste duzu?

Ezer ez	1	2	3	4	5	Asko
---------	---	---	---	---	---	------

Zergatik? _____

11. Hezitzaileak profil euskalduna izatea garrantzitsua dela uste duzu?

Ezer ez	1	2	3	4	5	Asko
---------	---	---	---	---	---	------

12. Atxutxiamaiak euskararen erabilera bultzatzeko beste zerbait egin dezakeela uste duzu? Zer?

Eskerrik asko zure denbora eskaini eta inkesta hau betetzearen. Nire azterketarako oso baliagarriak izango zaizkit zure erantzunak.

Bestalde, burutzen ari naizen lanaren inguruko berririk izan nahiko bazenu, jarri zaitetz nirekin kontaktuan lasai asko ondorengo helbidera idatzita: maiarnedo@gmail.com.

Mila esker!

4.2.3. Hezitzaileek betetako inkesta

1. Zenbat denbora daramazu *Atxutxiamaikan* hezitzaile moduan?

< urte bat	2 urte	3 urte	4 urte	5 urte	5 urte<
------------	--------	--------	--------	--------	---------

2. Zein ekintzatan aritzen zara hezitzaile modura?

Udalekuetan	Neguko/ Udaberriko txokoetan	Plazako ekintzeta n	Irteeretan	Zerbitzuetan (ate irekiak, zaintzak...)	Guztietan, salbuespenak salbuespen

3. Zergatik hasi zinen *Atxutxiamaikan* lanean?

Haurak gustatzen zaizkizulako	Euskararen erabileran eragin nahi duzulako	Diruagatik	Jende berria ezagutzeko	Besterik? (Hala bada, zehaztu esazu, mesedez)

4. Zehaztu esazu baieztapen honekin ados zauden edo ez: *Atxutxiamaikako hezitzailea euskalduna izan behar da.*

Erabat desados	1	2	3	4	5	Erabat ados
----------------	---	---	---	---	---	-------------

5. Hurrengo aukeren artean non kokatuko zenuke zeure burua?

Ama hizkuntza euskara eta oro har, euskaraz aritzen dena	
Ama hizkuntza euskara eta oro har, gaztelaniaz aritzen dena	
Ama hizkuntza euskara eta oro har, euskaraz zein gaztelaniaz aritzen dena	
Ama hizkuntza gaztelania eta oro har, euskaraz aritzen dena	
Ama hizkuntza gaztelania eta oro har, gaztelaniaz aritzen dena	
Ama hizkuntza gaztelania eta oro har, euskaraz zein gaztelaniaz aritzen dena	
Besterik? (Hala bada, zehaztu esazu, mesedez)	

6. Zeuri, Atxutxiamaiako hezitzaile izateak, eguneroko bizitzan, euskararen erabileran eragiten dizula esango zenuke?

Bat ere ez

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

 Asko

7. Aurreko erantzuna 3-5 bitartekoa izan bada, antolatu itzazu 1etik 5era (1 gutxien eta 5 gehien izanik) ondorengo ekintzak zugar duden eraginaren arabera:

Udalekuak	
Neguko/Udaberriko txokoak	
Plazako ekintzak	
Irteerak	
Zerbitzuak (ate irekiak, ezkontzak, zaintzak, etab.)	

8. Atxutxiamaiak antolatutako ekintzek haurren euskararen erabileran eragiten duela uste duzu?

Bat ere ez

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

 Asko

9. Antolatu itzazu ondorengo ekintzak haurren euskararen erabileran duten eraginaren arabera (1 gutxien eta 5 gehien)

Udalekuak	
Neguko/Udaberriko txokoak	
Plazako ekintzak	
Irteerak	
Zerbitzuak (ate irekiak, ezkontzak, zaintzak, etab.)	

10. Balora ezazu (modu orokorrean) 1etik 5era, zure ustez ondorengo ekintzetan haurren euskara erabilera maila:

Udalekuak	
Neguko/Udaberriko txokoak	
Plazako ekintzak	
Irteerak	
Zerbitzuak (ate irekiak, zaintzak, etab.)	

11. Atxutxiamaikako ekintzek gurasoen euskararen erabileran eragiten al dute zure ustetan?

Bat ere ez

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

Asko

12. Antolatu itzazu ondorengo ekintzak gurasoen euskararen erabileran duten eraginaren arabera (1 gutxien eta 5 gehien):

Udalekuak	
Neguko/Udaberriko txokoak	
Plazako ekintzak	
Irteerak	
Zerbitzuak (ate irekiak, zaintzak, etab.)	

13. Atxutxiamaikak euskararen erabilera bultzatzeko beste zerbait egin dezakeela uste duzu? Zer?

Eskerrik asko, zure denbora eskaini eta inkesta hau betetzearen. Nire azterketarako oso baliagarriak izango zaizkit zure erantzunak.

Bestalde, burutzen ari naizen lanaren inguruko berririk izan nahiko bazenu, jarri zaitetz nirekin kontaktuan lasai asko ondorengo helbidera idatzita: maiarnedo@gmail.com.

Mila esker!

4.3. Elkarrizketetarako gidoiak

Atxutxiamaika Saileko arduradunari den Naiara Martini eta *Elgoibarko Izarra* Kultur Elkarteko dinamizatzaile den Imanol Larrañaga “Txino”-ri eginiko elkarrizketen gidoiak aurkezten dira jarraian, emaitzak aurkezterakoan berauen interpretazioan lagungarri izango direlakoan.

4.3.1. Atxutxiamaika Saileko arduradunaren elkarrizketa gidoia

1. Zein da zure lana elkarte honetan?
2. *Atxutxiamaikako* koordinatzailea zara, beraz. Lehenago hezitzaile izandakoa zara? Nola hasi zinen aisialdi taldean parte harzten?
3. *Hasierako Atxutxiamaikaren* eta oraingoaren artean, bada alderik? Zein?
4. Egun, nola definituko zenuke *Atxutxiamaika*? Eta nola funtzionatzen du?
5. Zein da egitasmoaren helburua?
6. Betetzen al da?
7. *Atxutxiamaikak* haur, nerabe eta gazteen euskararen erabileran eragiten duela uste duzu? Nola?
8. Eta beraien gurasoengan eragiten duela esango zenuke? Nola?
9. Eta parte hartzaileetatik eragileetara salto eginez, hitz egin dezagun hezitzaileez. Honelako egitasmo batean parte hartzen duten hezitzaileek nolako perfila izan beharko lukete zure ustez?
10. Perfil horri erantzuten al diote egungo *Atxutxiamikako* hezitzaileek?
11. Bada bere egunerokotasunean euskaraz bizi ez den hezitzaileerik?
12. *Atxutxiamaikak* hezitzaile hauen euskararen erabileran eragiten duela uste duzu?
13. Zure iritziz, *Atxutxiamikak* zer du hobetzeko?

4.3.2. Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteko dinamizatzailearen elkarriketa gidoia


1. Nola eta zergatik sortu zen *Elgoibarko Izarra*?
2. Egun zein egoeratan dago?
3. *Atxutxiamaika* elkarteko egitasmoetako bat da. Zergatik sortu zen eta zertarako?
4. Egun nola definituko zenuke *Atxutxiamaika* bera eta egiten duen lana?
5. Bere helburuetako bat, haur, nerabe eta gazteek euskararen erabilera aktibo izatea da. Lortzen duela uste duzu? Hau da, sumatu duzu hartzaileen, hau da, haur, nerabe, gazte eta hauen gurasoen euskararen erabileran eragiten duenik?
6. Hezitzaileen perfilari dagokionez, zein ezaugarri izan behar dituztela esango zenuke?
7. Betetzen direla uste duzu?
8. Beraien egunerokotasunean euskaraz bizi den hezitzailearik badago? Eta *Atxutxiamaikan* parte hartzeak bere euskararen erabileran nolabait eragiten duela esango zenuke?
9. Zer du hobetzeko *Atxutxiamaikak* lehen aipaturiko helburua (Elgoibarko haur eta gaztetxoek euskararen erabilera sustatzea) erdieste bidean?

5. EMAITZAK


Atal honetan, *Atxutxiamaikako* hurrei, hauen gurasoei eta hezitzaileei eginiko inkesten emaitzak jasoko dira. Saileko arduradunari eta Elgoibarko Izarrako dinamizatzaileari eginiko elkarrizketen transkribaketak ostera ez dira hemen txertatu; eranskinen atalean jaso dira.

Inkesten emaitzak jasotzeko, hiru azpiatal banatuko dira: haurrak, gurasoak eta hezitzaileak. Galdera guztien emaitzak grafiko bidez aurkeztuko dira.


5.1. Haurrak




2. Haurren adina




3. Atxutxiamaikako zein ekintzatan hartzen dute haurrek parte?




4. Zer moduz pasatzen dute haurrek *Atxutxiamaikan*?




5. Zer gustatzen zaie haurrei gehien *Atxutxiamaikatik*?




6. Zer ez zaie gustatzen haurrei Atxutxiamaikatik?




7. Zer aldatuko lukete haurrek Atxutxiamaikatik?




8. Etxean zein hizkuntzatan hitz egiten dute haurrek?




9. Eskolan zein hizkuntzatan hitz egiten dute haurrek?




10. Plazan lagunekin zein hizkuntzatan hitz egiten dute haurrek?




11. Atxutxiamaikan lagunekin zein hizkuntzatan hitz egiten dute haurrek?





11.2. Atxutxiamaikan hezitzaileekin zein hizkuntzatan hitz egiten dute haurrek?




12. Haurrak Atxutxiamaikan dabiltzanetik zenbat hitz egiten dute euskaraz?




5.2. Gurasoak




3.1. Seme-alabak Neguko Txokoetara joaten dira?




3.2. Seme-alabak Neguko Irteeretara joaten dira?




3.3. Seme-alabak Udaberriko Txokoetara joaten dira?




3.4. Seme-alabak Udaberriko Egonaldietara joaten dira?




3.5. Seme-alabak Plazako Ekintzetara joaten dira?




3.6. Seme-alabak Familia irteeretara joaten dira?




4. Gurasoek beraien seme-alabak Atxutxiamaikara eramateko arrazoia




5. Seme-alaben ama-hizkuntza




6. Seme-alaben euskaraz hitz egiteko ohitura




7. Familiek etxean euskaraz hitz egiteko duten ohitura




8. Atxutxiamaikak haurren euskararen erabileran duen eragina gurasoen ustetan



9. Atxutxiamaikak gurasoen euskararen erabileran duen eragina gurasoen ustetan




10. Atxutxiamaiak antolaturiko ekintzek euskararen erabileran eragiteko duten baliagarritasuna



10.1. Zergatik uste dute gurasoek baliagarria dela?

<i>Gurasoen oharrak</i>	<i>Oharren maiztasuna</i>
“Jolasa eta euskara uztartzen dituelako”	1
“Hezitzaileek ia beti euskaraz hitz egiten digutelako”	1
“Hizkuntza bakarra delako”/”Dena euskaraz delako”	7
“Hurrek ondo pasatzeko alternatiba oso ona delako eta haurrak direlako euskararen etorkizuna”	1
“Gure hurrek ama-hizkuntza euskara dute eta egunero erabiltzen dute, baina haur eta guraso askorentzako oso baliagarria da”	1
“Inportantea delako hurrek beraien bizitzan eta aisialdian euskaraz normaltasunez aritzea”	1
Erantzunik gabe	18

12. Hezitzaileek profil euskalduna izatea garrantzitsua dela uste duzu?




11. Atxutxiamaiak hobetzeko dituenak


<i>Gurasoen oharrak</i>	<i>Oharren maiztasuna</i>
“Atxutxik oso lan handia eta ona egiten du eta bide honetartik jarraitu behar duela uste dut. Ekintza politak eta aberatsak antolatzen dituzte”	1
“Gutxi gehiago. Ekintza gehiago antolatu, baina jendeak erantzuten ez badu... Euskarazko gramatika jolasak asmatu, ez bakarrik euskaraz hitz egiteko, ondo hitz egiteko baizik”	1
“Aztertu etortzen ez diren umeen profila eta horren arabera erraztu beraien parte hartzea”	1
“Oso la nona egirten duzue, segi horrela!”	1

5.3. Hezitzaileak


1. Zenbat denbora daramazu *Atxutxiamaikan* hezitzaile modura?




2. Zein ekintzatan aritzen zara hezitzaile modura?




3. Zergatik hasi zinen Atxutxiamaikan lanean?




4. Zehaztu ezazu baieztapen honekin ados zauden edo ez: "Atxutxiamaikako hezitzailea euskalduna izan behar da".




5. Hurrengo aukeren artean non kokatuko zenuke zeure burua?




6. Atxutxiamaikako hezitzaile izateak, eguneroko bizitzan, hezitzaileen euskararen erabileran duen eragina (hezitzaileen ustetan)




7. Ekintzek hezitzaileengan duten eragina




8. Atxutxiamaikak antolatutako ekintzek haurren euskararen erabileran eragiten duela uste duzu?




9. Atxutxiamaikako ekintzek haurren euskararen erabileran duten eragina hezitzaileen ustez




10. Atxutxiamaikako ekintzetan haurren euskararen erabilera maila hezitzaileen arabera



11. Atxutxiamaikako ekintzek gurasoen euskararen erabileran eragina duten edo ez hezitzaileen ustez



12. Atxutxiamaikako ekintzek gurasoen euskararen erabileran duten eragina



13. Atxutxiamaiak zer du hobetzekorik hezitzaileen ustetan?		
<i>Oharrak</i>	<i>Oharren maiztasuna</i>	<i>Zenbat denbora daramate hezitzaile horiek Atxutxiamaikan?</i>
Antzerkiak egin	1	< urte 1
Euskal kulturarekin lotutako ekintzak	2	< urte 1
Euskara umeekin nola landu daitekeen hezitzaileekin landu, euskararen erabilerak duen garrantziaz ohartaraztearekin batera	1	< urte 1
Guraso erdaldunei euskara eskolak ematea haurrekin eguneroko gauzez euskaraz aritu ahal izateko		5 urte >
Guraso eta haurrekin batera, jolas/eskulan... tailerrak egiteko saioak eskaini transmisioan eragiteko	1	5 urte >
Plazako ekintzez gain, gainontzekoetan, gurasoen euskararen erabileran eragiteko ekintzak antolatzea	1	5 urte >
Herriko ikastetxeekin harremanetan jarri eta eskola orduz kanpoko jarduerak eskaini adin eta ikasdtetxeko ezberdinetako haur, nerabe eta gazteei	1	< urte 1
Atxutxiamaiakako hezitzaileak aisiadli taldeko parte dira eta beraz, eredu izan beharko lirateke; ez dira ekintza soiletara mugatu behar, gero ere eredu izan beharra baitago. Hau landu beharko litzateke.	1	5 urte >

5.4. Elkarrizketak

Elkarrizketak egiteko aurrez txertatu diren elkarrizketa gidoiak jarraitu dira. Transkribaketei dagokienez, zenbait irizpide zehaztu dira aurrez, hala nola:

- Elkarrizketak tokiko hizkeran egin badira ere, transkribaketa euskara batuan jaso da.
- Hitz-hartze bakoitza paragrafo baten jaso da.
- Hizlaria bereizteko izenak erabili dira (Naiara edo “Txino” elkarrizketatua eta Maialen elkarrizketatzailea)
- Erdarazko esapideak kurtsiban jaso dira.
- Hitzen bat aipatu ez baina ulermenerako beharrezkoa izan denean, parentesi artean txertatu da.

Atalaren hasieran esan bezala, transkribaketak ez dira hemen txertatuko, eranskinetan baizik. Hauen azterketatik ateratako ondorioak aldiz, 6. *ONDORIOAK* atalean bildu dira.

6. ONDORIOAK

Ondorioen atal honetan, ez dira galderen erantzunak banan-banan aztertuko. Izan ere, 4. atalean (ikus. 4. *EMAITZAK*) grafikoen bidez erantzun guztiak jaso dira eta hortaz, oraingoan, ikerlan honen helburuari zuzenki loturikoak baino ez dira aipatuko. Esan nahi da, beraz, haur, guraso eta hezitzaileen euskararen erabilerari loturiko galdera-erantzunak izango ditugula hizpide ondorengo lerroetan. Honez gain, *Atxutxiamaika* Saileko arduraduna den Naiara Martini eta Elgoibarko Izarrako dinamizatzailea den Imanol Larrañaga “Txino”-ri eginiko elkarrizketetatik ateratako zenbait datu garrantzitsu bilduko dira.

Hala, bi multzo nagusitan banatuko da atal hau. Alde batetik, ondorio zehatzak aurkeztuko dira eta bestetik, orokorrak. Lehenengoaren baitan, era berean, lau azpiatal bereiziko ditugu: haurren inkestei dagokiena lehenengoa, gurasoena bigarrena, hirugarrenik hezitzaileen inkestetatik jasotako ondorioak eta azkenik, elkarrizketen bidez ondorioztaturikoak. Bigarrengoan aldiz, aurrez aipaturiko helburu zehatzak aintzakotzat harturik, hainbat ideia orokor azpimarratuko dira, zeinak ikerlanaren hasieran finkaturiko xede nagusiari erantzuteko asmoz aurkeztuko diren.

6.1. Ondorio zehatzak

6.1.1. Haurrak

Lanaren hasieran aipatu bezala, inkestak 4-12 urte bitarteko haurrei pasatzea zen asmoa. Dena dela, Atxutxiamaikan, 9-12 urte arteko haurren izen-ematea nahiko murrizta dela ikusirik, azterketa eremua mugatu egin da alor honi dagokionez. Hortaz, 4 urtetik 9 urterainoko haurrei eskatu zaie inkesta betetzeko eta zenbait kasutan, nik neuk egin dizkiet galderak hainbatek, oraindik, ez baitakite irakurtzen edota idazten.

Euskararen erabilerari erreparaturik, inkestetan, honi begirako zenbait galdera planteatzen zaizkie haurrei, hala nola, zein hizkuntzatan hitz egiten duten etxean, eskolan, lagunartean eta atxutxiamaikan bertan (bai lagunekin eta baita hezitzaileekin ere). Emaitzak erakusten dutenez, etxean euskaraz aritzen diren haurrak %42a dira. Gutxiago dira gaztelaniaz mintzo direnak familia giroan, %25a, hain zuzen ere eta bada

bi hizkuntzatan hitz egiten duenik ere. Azken hau %29ren kasua litzateke. Beraz, etxeko erabilerari dagokionez, euskara nagusi dela esan genezake.

Eskola eremura joz gero ostera, zer ikus genezake? Grafikoei begiratu besterik ez dago, kasu honetan ere, hurrek ikastetxeetan gehien erabiltzen duten hizkuntza euskara dela ikusteko, baina ez alde nabarmenarekin. Izan ere, euskara hutsean aritzen direnak %53 diren bitartean, bi hizkuntzatan hitz egiten dutenak %47 dira. Distantzia txikia, zinez.

Plazan lagunekin ea zein hizkuntzatan hitz egiten duten galdetzerakoan, hurrek bi erantzun nagusi eman dituzte. %43ak euskara hutsean aritzen direla aipatu dute eta gainontzekoek aldiz, hau da, %47ak, gaztelaniaz zein euskaraz mintzo direla lagunartean. Datuok aurrez aurkezturikoekin alderatuz gero, argi dago, euskararen erabilera txikiagoa dela kalean eskola eremuan edota etxe giroan baino. Dena dela, azpimarratu beharra dago, kopuruak ez dutela horren alde nabarmenik.

Lan honen helburua, lehenago aipatu bezala, *Atxutxiamaika* Aisialdi Taldeak haurren, hauen gurasoen eta hezitzaileen euskararen erabileran eraginik ba ote duen aztertzea da. Hala izanik, aurrez aurkezturiko galderez gain, *Atxutxiamaikan* daudenean, hurrek zein hizkuntzatan berba egiten duten galdetu zaie. Erantzunak azterturik, hauexek dira ondorioak: %70ak lagunekin euskaraz hitz egiten du eta %30ak aldiz, gaztelaniaz zein euskaraz, bietan. Hezitzaileekin ostera, jarrera aldatu egiten da, %100ean aritzen baitira haurrak euskaraz beraiekin.

Azken datuok azpimarragarriak direla esan beharra dago, aurreko datuekin alderatuz gero, alde nabarmena dagoela esan baikenezake. Familian, eskolan edota lagunartean, hurrek gutxiago hitz egiten dute euskaraz *Atxutxiamaikan* daudenean baino. Gainera, aipatu beharra dago, plazan lagunartean eta *Atxutxiamaikan* lagunartean euskararen erabilera desberdina dela, ikus berri dugun moduan.

Esandakoari estuki loturik dago hurrei eginiko inkestako azken galdera, zeinetan *Atxutxiamaikan* euskara gehiago, berdin edo gutxiago erabiltzen duten galdetzen zaien. Erantzunek erakusten dutenez, %37ak gehiago erabiltzen duela dio, %63ak berdin eta haur batek ere ez du esan gutxiago erabiltzen duenik. Beraz, ondorio positiboen aurrean gaudela esango genuke.

6.1.2. Gurasoak

Lan metodologiaz hitz egiterakoan esan bezala, 30 gurasori pasa zaie inkesta. Aipatu beharra dago, guraso hauetako askok seme-alaba bat baino gehiago dituztela eta beraz, kasu batzuetan, 9-12 urte bitarteko haurrak dituztenak ere badira. Dena dela, adin-tarte horretako haurrak edo nagusiak dituen gurasoei ez zaie inkesta pasa.

Grafikoei erreparatuta, galderen emaitzak nolakoak izan diren ikus genezake. Aipagarriena, ikerlan honen kasuan, euskararen erabilerari dagokiona denez, hementxe jarriko dugu begirada.

Ezinbestean jaso beharreko ondorioen artean, gurasoen bere seme-alabak Atxutxiamaikara eramatearen arrazoia zein den edo zeintzuk diren litzateke. Datuek diotenez, guraso guztiek, salbuespenik gabe, arrazoiaren artean, hurrek ondo pasatzearena markatu dute. Dena dela, beste hainbatek beste arrazoiaren bat ere aukeratu du aipatu berri denarekin batera, tartean, haurrak euskaraz aritu daitezela eta gurasoen lanagatik. Beraz, hiru arrazoi nagusi daudela esan beharko genituzke eta denetan garaile ondo pasatzea ateratzen dela.

Euskararen erabilerara salto eginez, besteak beste, gurasoei beraien seme-alaben ama hizkuntzagatik, hurrek zein hizkuntzatan hitz egiteko ohitura duten, familia giroan egiten den hizkuntza erabileragatik eta *Atxutxiamaikako* ekintzek hautu horretan duten eraginagatik galdetu zaie. Emaitzak aztertuz, ondorioztatu genezake, hurren %60aren ama-hizkuntza euskara dela %37arena gaztelania eta gainontzekoena, biak. Dena dela, gurasoei beraien seme-alabek euskaraz hitz egiteko duten ohituragatik galdetzerakoan, kopuruak behera egiten duela esan genezake. Izan ere, %40ak euskaraz asko aritzen direla aipatu duen arren, %23ak 3-4 arteko emaitza markatu du eta gainontzekoek beheragokoa. Bada alderdi beraz, aurreko emaitzen eta oraingoaren artean.

Familietan euskara hitz egiteko dagoen ohiturari dagokionez, gurasoen %27ak bat ere hitz egiten ez dutela aitortu du, %20ak erdibideko erantzuna eman du eta %36ak markatu du bostekoa. Hortaz, erantzun aniztasuna dagoela esan beharrean gaude.

Atxutxiamaikari dagokionez, hurren zein gurasoen euskararen erabileran duen eraginaz galdetuta, gurasoek ezberdintasuna markatu dute. Izan ere, aisialdi taldeak hurren euskararen erabileran (guztiek 3-5 arteko erantzuna eman dute) gurasoenen

baino eragin handiagoa (gehienek, 1-3 arteko erantzuna eman dute) dutela ondoriozta genezake datuen bidetik.

Bukatzeko, *Atxutxiamaikako* ekintzei erreparatuta, hemen ere, erantzunetan, alderik badagoela nabarmendu genezake. Erantzunek erakutsitakoaren arabera, hamar gurasotatik zazpi asko eragiten dutela uste dute eta gainontzekoek, bat eta bost arteko eskalan, laukoa markatu dute. Beraz, eragiten dute ekintzek beraien ustetan.

Azken galdera honekin batera, galdetegian, zergatia galdetzen zitzairen gurasoei eta haxe izan zen gehien errepikatutako erantzuna: “Hizkuntza bakarra delako” edota “Dena euskaraz delako”. Honez gain, beste hainbat ere aipatu ziren, besteak beste: “Jolasa eta euskara uztartzen dituelako”, “Hezitzaileek ia beti euskaraz hitz egiten digutelako” eta “Haurrek ondo pasatzeko aukera oso ona delako eta haurrak direlako euskararen etorkizuna”.

Beraz, badirudi, gurasoen iritziz, *Atxutxiamaikaren* ekintza eta egitasmo guztiak euskaraz burutzeak baduela eraginik euskararen erabileran. Horrez gain, ezin albo batera laga, gurasoek eurek emandako erantzunek erakusten duten legez, ekintzak euskaraz ez ezik, beharrezkoa ikusten dutela aisialdi taldeko hezitzaileek profil euskalduna izatea (erantzun guztiak 4-5 bitartekoak izan dira).

6.1.3. Hezitzaileak

Atxutxiamaikako hezitzaile diren guztiei (salbuespenak salbuespen) pasa zaie inkesta eta orotara, 40 pertsonen bete dute galdetegia. Hauetatik, asko dira (ia %50a) urte bete baino gutxiago daramatenak bertan parte hartzen eta gutxiago (%23a) bost urtetik gora daramatzatenak. Perfil ezberdinak izanik ere, guztiek erantzunak garrantzitsuak dira ikerlanaren helburua lortze bidea,

Aurreko galdetegietan egin bezala, honetan ere, mota ezberdinetako galderak egin zaizkie hezitzaileei. Tartean noski, euskararen erabilerari loturikoak eta horiexek izango dira jarraian bilduko direnak.

Hasteko eta behin, hezitzaileen profil euskaldunari buruzko erantzunak ekarriko dira lerro artera. Berauek azterturik, ikus genezake, 3 eta 5 bitarteko erantzunak eman dituztela hezitzaileek eta puntuaziorik altuena eman diotenak %54 izan direla. Beraz,

ondoriozta daiteke, *Atxutxiamaikako* hezitzaileek garrantzitsua deritzotela profil euskalduna izatea. Honi loturik, aipatu beharra dago, aisialdi taldean dauden hezitzaileen artean, gehiengoak, ama hizkuntza euskara duela eta hauen artean, oro har, %43a, oro har, euskaraz aritzen dela eta %31a oster, gaztelaniaz zein euskaraz. Beraz, honek eragina izan lezake aurreko erantzunean eta baita ondorengo galderaren erantzunak ere: “*Atxutxiamaikako* hezitzaile izateak eguneroko bizitzan, euskararen erabileran eragiten al dizu?” Erantzun gehienak 3-4 bitartekoak izan dira eta gutxi izan dira 5ekoa eman dutenak (%14a). Hemen ere, noski, ama hizkuntza euskara izateak eta egunerokotasunean hizkuntza horretan aritzeak pisu handia du, perfil hau duen hezitzaileak ez bailuke bestelako eraginik jaso beharko euskaraz aritzeko.

Dena dela, eragina badu *Atxutxiamaikak* beraien ustetan eta ekintzei eurei erreparaturik, beraien iritziz, udalekuak dira indar handien dutenak bai hezitzaileengan eta baita haurrengan ere. Azken honi jarraiki, gainera, hezitzaileek uste dute, ekintzek izugarrizko eragina dutela haurrengan eta horren adierazle da %91ko kopurua.

6.1.4. Atxutxiamaikako arduraduna eta Elgoibarko Izarrako dinamizatzailea

Haurren, gurasoen eta hezitzaileen inkestetatik ateratako ondorio garrantzitsuenak aurkeztu ostean, *Atxutxiamaikako* arduradunari eta elkarteko dinamizatzaileari eginiko elkarrizketatik, hainbat ondorio garrantzitsu atera litezkeenez, horiek izango dira ondorengo lerroetan jasoko direnak.

Atxutxiamaikak dituen erronkei buruz hitz egiterakoan, hauxe erantzuten du saileko arduradunak:

Atxutxiamaikak, beno Elgoibarko Izarrak lau erronka jarri dizkio bere buruari eta *Atxutxiamaika* gehienbat zentratzen da Elgoibarren euskararen erabilera sustatzen. Eta horretarako dauzka lau egitasmo. Bat dala familietan eragin, bestea aisialdi sendo eta iraunkorra eskaintzea, ume eta gazteen esparruak euskalduntzea eta 13 eta 17 urte bitarteko gazteen kontzientzia sustatzea. Eta beno, horretan gabiz. Lehen, gehienbat, zentratzen ginen aisialdian eta orain, ba beno, aldaketa bat jarri diogu geure buruei eta *Atxutxiamaikari* berari.

Beraz, egiteari baino eragiteari eman nahi dio garrantzia elkarteak, hain zuzen ere, euskararen erabilerari erreparatuta, hori iruditzen zaielako egin beharrekoa. Honen

harira, *Atxutxiamaika* Saileko arduradunak aipatzen du, oso garrantzitsua dela haurren eta hauen gurasoen eragiten ahalegintzen, modu honetan, bide berri bat zabal daitekeelako: eragina jasotakoek beste zenbaitengan eragitea gero. Ideia honetan bat datoz bi elkarrizketatuak. Izan ere, elkarteko dinamizatzailerak ere ezinbestekotzat jotzen du eredu izatearena.

Bestalde, *Atxutxiamaikaren* helburuan zentratuz, Elgoibarko Izarrako dinamizatzailerak erantzunik eman ezin duela dio. Bere hitzetan, 1996tik gaur egunera arte ez da honen inguruko azterketarik egin eta beraz, ez daki zehazki erantzuten. Pertzepzioetara joz, oster, baiezkoan dago elkarrizketatua.

Saileko arduradunak *Atxutxiamaikak* bere helburua betetzen duela uste duela aipatzen du. Bere ustetan, ahozkoasuna lantzeko ekintza ugari eramaten ditu aurrera aisialdi taldeak eta horien artean, ezin genitzakeela albo batera utzi udalekuak. Badira hainbat ume udan euskaraz berba egiteko inolako aukerarik ez daukatenak eta *Atxutxiamaikak* aukera hori eskaintzen die.

Bestalde, badira beste hainbat egitasmo edota jardura helburua betetze bidean garrantzitsu direnak, hala nola: *Beinke* Bertso Eskola, Ludoteka, Gaztelekua, etab. Bertso Eskolan adibidez, astean hiru saio ematen dira eta horrek, bertan izena eman duten haur eta gaztetxoek euskararen erabileran eragiten du; bai arintasunean, bai euskaraz ondo pasatzen, hizkuntzarekin berarekin jolasten...

Horrez gain, gurasoei zuzenduriko formazio saioak ere eskaintzen ditu *Atxutxiamaikak*, nolabait, kontzientzia pixka bat pizteko asmoarekin. Elkarrizketatuaren hitzetan, oso inportantea da gurasoak eredu pisuzko izanda, hauengan eragitea, ondoren, beraiek euren seme-alabengan eragin dezaten.

Beraz, bere ustez, *Atxutxiamaikak* eragina dauka bai haurren eta baita gurasoen euskararen erabileran, nahiz eta noski, kasuan kasuko eraginez hitz egin beharko genukeen. Honekin batera, hezitzaileengan duen eraginaz ere galdetu zaio eta bere erantzuna argia izan da: “Bai”. Aipatzen duenez, aisialdi taldeko hezitzaile guztiek euskaraz badakite eta gehiengoak euskaraz bizi dira beraien egunerokotasunean. Badira salbuespen gutxi batzuk, dena den eta hauen euskararen erabileran (aisialdi taldearen baitako ekintzetan) izugarri eragiten ei du *Atxutxiamaikak*.

Elkarteko dinamizatzailari dagokionez, bestelako iritzia du. Bere ustetan, *Atxutxiamaikako* hezitzaile denak euskalduntasun barneraturik izan beharko luke eta hala ez izatekotan, elkarteak eta aisialdi taldeak berak lagundu beharko lioke berau garatzen. Hau ez egitea elkartearen huts bat izan dela aitortzen du eta aurrerantzean egin beharrekoen artean dagoela. Beraz, bere ustetan, hezitzaileak euskaradunak eta berau darabiltenak izan beharko lirateke alde batetik eta euskalduntasuna barneraturik dutenak, bestetik.

6.2. Ondorio orokorrak

Azken atal hau, puntuz puntu aurkeztuko da, modu honetan, ideiak argiago azalduko direlakoan.

- *Atxutxiamaikak* eragina dauka hurren euskararen erabileran hauek bertan daudenean. Izan ere, lagunekin gehiago aritzen dira euskaraz *Atxutxiamaikan* daudenean eta hezitzaileekin ere %100ean aritzen dira euskaraz. Bestalde, gurasoek eta hezitzaileek ere, ekintzek haurrengan eragin handia dutela deritzote.
- Gurasoen euskararen erabileran ere eragina dauka *Atxutxiamaikak*. Nahiz eta haurrengan bezain besteko eraginik ez izan, gurasoek aitortzen dute hezitzaile ia guztiak euskaraz zuzentzen zaizkiela beti eta horrek, beraiek ere erabiltzera bultzatzen dituela.
- Hezitzaileengan ere badu eraginik aisialdi taldeak. Datuek erakusten diguten modura, askoren ama-hizkuntza euskara da eta beraien egunerokotasunean euskaraz aritzen direnak ere dezente dira, nahiz eta gaztelaniaz jarduten duenik ere badagoen. Beraz, hau kontuan izanik, espero zitekeen modura, eragina ez da horrenbestekoa.
- *Atxutxiamaikako* arduradunaren eta elkarteko dinamizatzailaren ustetan, aisialdi taldeak ibilbide luzea egin du orain artean, baina badu hobetzekorik. Beraien iritziz, elkarteak lan handia egin behar du hezitzaileen euskalduntzean. Aipatu dutenez, ez da horrelako lanketarik egin orain artean eta ezinbestekoa da, *Atxutxiamaikako* erronkak bete

nahi izanez gero. Beraz, *Atxutxiamaikak* euskararen erabileran eragin nahi badu, elkarrizketatuek beharrezkotzat jotzen dute taldean lanketa egitea, hezitzaileak gero eredu izango baitira.

- Bestalde, bi elkarrizketatuei *Atxutxiamaikak* euskararen erabileran ia eraginik ba ote duen galdetzean, batek ez dakiela erantzun du eta bigarrenak baiezkoa eman du. Azpimarratzen duenez, egoerak okerrera ez du egin eta *Atxutxiamaika* saiatzen da, egitasmo eta ekintza ezberdinen bidez, bere helburu eta erronkak betetzen. Hobetzekorik badagoela badakien arren, hainbat gauza ondo egin direla ere aipatzen du.

7. BIBLIOGRAFIA

ZUAZO, Koldo (2006) *Deba ibarreko euskara*.

ELGOIBARKO UDALEKO EUSKARA BATZORDEA (2008) *Euskararen erabilera Elgoibarko kaleetan. Elgoibar,*

_____ (2010) *Euskararen erabilera Elgoibarko kaleetan. Elgoibar.*

ElgoiBARREN.net (2014) “180 ume eta gazte parte hartzen ari dira Udako Kirol Udalekuetan”. BARREN: Elgoibar.

Esteka: <http://www.elgoibarren.net/content/view/5131/11/> [Kontsulta data: 2014/07/15]

ElgoiBARREN.net (2014) “Jolasean eta kantuan hasi dute oporraldia 243 umek Atxutxiamaikaren Udako Txokoetan”. BARREN: Elgoibar.

Esteka: <http://www.elgoibarren.net/content/view/5123/11/> [Kontsulta data: 2014/07/15]

ERANSKINAK

I. ERANSKINA

NAIARA MARTIN (Atxutxiamaiika Saileko arduraduna)

ELKARRIZKETAREN TRANSKRIBAKETA - 2014/07/03

Maialen: Beno, kaixo Naiara. Eskerrik asko elkarrizketarengatik. Beno, badakizun moduan, master bat egiten nago, HIZNETeko ikastaroa egiten nago eta galdera batzuk egingo dizkizut zure lanaren inguruan.

Naiara: Oso ondo.

Maialen: Atxutxiamaikaren inguruan apur bat gehiago jakiteko, bale? Orduan, zein da zure lana elkarte honetan?

Naiara: Ba ni Atxutxiamaiika saileko arduraduna naiz eta orduan, nire lana da Atxutxiamaiika Sailak bere buruari hiru urtetarako jarri dizkion erronka, helburu eta estrategiak aurrera eramatea.

Maialen: Beno, orduan, Atxutxiamaikako arduraduna zara, baina lehenago, Atxutxiamaikan bertan, aisialdi taldean, hezitzaile izandakoa zara, ezta?

Naiara: Bai.

Maialen: Eta nola hasi zinen aisialdi taldean parte hartzen? Zenbat urterekin?

Naiara: Ba 2000. urtean, 18 urterekin, egin nuen begirale ikastaroa Urtxintxarekin eta 2001ean hasi nintzen hemen. Eta ba enpresaritza ari nintzen ikasten, egin nuen begirale ikastaroa, laga nuen karrera, pedagogian sartu nintzen eta jada ba, nire buruan argi ikusi nuen hau zela jarraitu beharreko bidea eta hemen jarraitzen dut.

Maialen: Oso ondo. Eta orduan zuk, esan genezake, ezagutzen duzula lehengo, hasierako bateko Atxutxi eta gaur egun dena. Ikusten duzu alderik bien artean? Hau da, sortu zenetik hona, nonbaiten, desberdintasunik ikusten duzu?

Naiara: Ni izan nintzen ume ere bai. 96an uste dut sortu zela Atxutxi, ni 2001ean sartu nintzen. Hasiera, bai hasierako etapa horretan, gizartea uste dut nik desberdina zela, taldeak indar handiagoa zeukan eta denbora gehiago dedikatzen zion honi. Denbora gehiago, kobratu gabe eta ondo pasatzen genuen elkarrekin. Eta nik dauzkadan lagun asko, koadrilatik kanpo nire lagunak, nik aukeratutako lagunak direnak, hemendik

dauzkat. Gau egun, ba beno, aldatzen doa gauza, denbora dedikatzeko lehentasunak ere aldatzen doaz eta iruditzen zait, azkenean, boluntario lanak direnak kaltetuak irten direla garapen horretan edo ibilbide horretan. Ba beno, hasieran, edozer gauzatarako prest, asteburuak... berdin du, kafea hartzen genuen elkarrekin... eta orain da gehiago lanari lotutako talde bat.

Maialen: Lehen gehiago agian zen militantziari lotutako taldea eta orain da gehiago lanera, beno lan orduak eskaintzeko prest dagoen hezitzaile talde bat?

Naiara: Bai, hau da, ekintzei begirako lan batzuk egiten dira, baina lehen zena bizimodu bat, gaur egun da ba beno, egiten du hau gero lan bat edukiko dudalako edo dena delako.

Maialen: Eta dena dela, beno, hezitzaileen artean perfil ezberdinak egongo dira, ez? Esan nahi dut, egun militantea ez baldin bada ere %100ean taldea...

Naiara: Beno, nik, denak dira militante, bai ala bai. Denborak neurtzen ez gara hasiko, baina militantzia denek eskaintzen diote. Gero militantzia horren kalitatea pixka bat gogorra da esatea, baina militantzia horren emaria edo emaitza zein den, ba batetik bestera aldatu egiten da. Edo batek agian militantzia berari sortzen zaio ba hau egingo dut iruditzen zaiolako hau egin behar dutela eta beste bati agian, esan egin behar diozu.

Maialen: Maila ezberdinetan daude agian...

Naiara: Bai, baina beno, hori lehen ere bazegoen. Esan nahi dut, pertsonak gara eta bakoitza bere etxetik dator.

Maialen: Eta orduan gaur egungo Atxutxiamaiak, ikusita aldatu egin dala sortu zenetik hona eta beno, urteak pasatu ahala, nola definituko zenuke Atxutxiamaiak eta nola funtzionatzen du?

Naiara: Nik uste dut gaur egun bulegoak pisu handiagoa daukala. Lehen profesional bakarra zegoen honetara dedikatzen zena, gero lau izan ginen, gero hiru, orain gara bi... baina bulegoari bai eman zaiola edo etapa emankor baten, langile dezente zeudenean Elgoibarko Izarran, lau langile izatera ere iritsi gara eta horrek suposatu zuen lan handiagoa bulegotik egitea. Eta niretzako hor inflexio puntu argi bat ikusten da taldean bertan. Lehen zena ba taldea edo aisialdi proiektua hezitzaileen esku zegoen, gehienbat eta orain, ba beno, hezitzaileek bai lan puntualak eta baina, iruditzen zait bulegoak hartu

duela pisu handia. Funtzionatzen du... hilabeteen behin asanbladak izaten ditugu, hiru gero hilabeteen behin formazioa izaten dugu elkarrekin eta gero ba beno, ekintzak datozenean taldetxoak sortzen dira. Aurreko urtean hausnarketa bat hasi genuen hausnarketa prozesu bat eta orain gaude, beno ez digu denborarik eman ondorio horiek praktikatzeko. Lehen ginen 40 hezitzaile eta 15ek beraien burua taldetik kanpo ikusten dute eta ba beno, nik uste dut, ez dakit, beno, ezin dizut ezer ziurtatu oraintxe bertan,

Maialen: Eta egitasmo hau, beno, Atxutxiamaikaren egitasmoa bera hartuta, zein esango zenuke lortu nahi dena edo helburua?

Naiara: Atxutxiamaikak, beno Elgoibarko Izarrak lau erronka jarri dizkio bere buruari eta Atxutxiamaiak gehienbat zentratzen da Elgoibarren euskararen erabilera sustatzen. Eta horretarako dauzka lau egitasmo. Bat dala familietan eragin, bestea aisialdi sendo eta iraunkorra eskaintzea, ume eta gazteen esparruak euskalduntzea eta 13 eta 17 urte bitarteko gazteen kontzientzia sustatzea. Eta beno, horretan gabiz. Lehen, gehienbat, zentratzen ginen aisialdian eta orain, ba beno, aldaketa bat jarri diogu geure buruei eta Atxutxiamaikari berari.

Maialen: Agian, gehiago formazioari begira, ez?

Naiara: Bai, egiteari baino eragiteari eman nahi izan diogu garrantzia, erabilerari begira, iruditzen zaigulako, hori dela egin beharrekoa. Eragin bestiengan gero beraiek egin dezaten ume edo gazteekin.

Maialen: Orduan, haur, nerabe, gazteak eta gurasoak era bai.

Naiara: Bai.

Maialen: Eta betetzen da helburua zure ustetan?

Naiara: Nik uste dut baietz.

Maialen: Horrela, kanpotik eta bulegotik bertatik begiratuta.

Naiara: Nik esango nuke baietz. Ahozotasuna lantzeko iruditzen zait badauzkagula txokoak, adibidez oraintxe bertan, txokoak. Badaude ume asko udan ez daukatenak inolako aukerarik euskaraz berba egiteko eta Atxutxiamaikak aukera hori eskaintzen die. Bertso Eskolarekin adibidez, hiru saio ematen dira astean eta horrek

ahozkotasunean ere eta arintasun horretan eta euskaraz ondo pasatzen eta jolasten, hizkuntzarekin berarekin jolasten ere, horrek asko laguntzen du. Eta beno, Ludotekan eta Gaztelekuan euskaraz egiten da eta azkenean, euskararen erabilerari begira gaude, orduan, nik uste dut baietz. Gero, gurasoengan ere formazio saioak eta kontzientzia pixka bat pizteko edo proiektua badaukagu eta orduan, pentsatzen dugu gurasoak eredu oso pisuzkoa izanda, gurasoengan eragiten badugu umeengan ere ikusiko dela eragin hori eta pentsatzen dut baietz.

Maialen: Eta apur bat salto eginda parte hartzailetatik eragiletara, eragileetara, barkatu. Apur bat hezitzaileen inguruan berba eginda, lehen ere egin diogu erreferentzia baina, apur bat horra bueltatuta... Horrela, Atxutxiamaiak bezalako egitasmo baten parte hartzen duten hezitzaileek zelako perfila izan beharko lukete? Hau da, lehen aipatu dugu militantzia, aipatu dugu, ba beno, emari hori ezberdina dela hezitzaile batzuetatik bestera. Perfila ere ezberdina izango da hezitzaile taldean ze beno, batzuk bagara. Zein izan beharko litzake perfil hori edo behintzat, gutxieneko ezaugarri batzuk aipatzekotan, zeintzuk izango lirateke zure ustetan?

Naiara: Oinarrizkoena eta dena bai ala bai da euskara jakin beharra. Hori ez dakienak ez dauka lekurik. Eta gero nik esango nuke eragiteko gogoia, jarrera aktiboa eta motibazioa. Nik uste dut motibazioa eta gogoia direla oinarrizkoenak eta gero, elkarteak egin behar duela lan bat hezitzaile horiek formatzen: euskalduntze edo euskalduntasunaren gaineko kontzientzian edo hezkidetzan edo balore, lantzen diren balore anitzetan... Nik uste dut elkarteak egin behar duela lan hori. Iruditzen zait.

Maialen: Eta egun, eskaintzen zaie hezitzaileei formazio saiorik? Saiatzen da elkartea?

Naiara: Formazioa... elkarteak nik uste dut, orain artean behintzat, elkartea eta proiektua nahiko soltean joan direla eta Atxutxiamaiak egin duela bide bat eta elkarteak egin duela beste bat. Gaur egun, beno, bagabiltza lan metodologia aldatzen eta filosofiari edo norabideari eragiten dioten gauzez arduratzen den pertsona bat badaukagu. Eta elkarteak berak erabaki behar du eta erabaki beharko du zer den hezitzaileekin landu nahi dena. Ze ez da kasualitatea ere ez hezitzaileak Atxutxiamaiak gerturatu bai, baina elkartetik pasatzen ez direla. Orduan, formazioa bai, hiru hilabete behin edo bestela, suertatzen denean ere egiten dugu, baina akaso, ez dugu asmatzen nola euskararen gaian eragiten kontzientzia horretan eta gero, agian ba Atxutxiamaiak daudenean bai, baina gero jada kalera irteten direnean, atea zabaldu

eta badoazenean, hor jada oso zaila da, oso zaila. Saiatu saiatzen gara. Igual, ez intentsitate handiarekin e.

Maialen: Eta perfilaren inguruan berba egin dugunean, beno, oraintxe aipatu duzu euskara jakitearena eta euskararen erabileran eragitearena. Gaur egun dagoen hezitzaile taldeari begiratuta, esango zenuke betetzen dela perfil hori? Hau da, atxutxiko hezitzaile denak ezaugarri horiek badituztela? Hau da, euskaraz jakin badakigu, esan nezake nik, parte naizelako, baina eragite mailan?

Naiara: Eragite mailan, nik taldean dauden 30 horiekin e, gehienak euskal hiztunak dira eta euskara erabiltzen dute beraien egunerokotasunean. Badaude bost bat beraien koadrilan, beraiek koadrilakoak direla gainera, ez dutenak egiten euskaraz. Nik alde positiboa ikustearren, hemen askotan komentatu izan dugulako, iruditzen zait koadrila baten jada euskara, ba beno, Atxutximaikan dauden bitartean euskaraz egiten dute beraien artean iruditzen zait hori ere badela Atxutxiamaiak eragiten duela pertsona horiengan. Eta akaso, koadrila euskaldunduko genuke egunean hiru ordu pasatuko balitu. Orain, ezin gara koadrilaka hasi, baina nik uste dut %100ean euskaraz egiten duenik ez dagoela taldean eta euskaldun on edo txarrik ere ez dagoela. Eta askotan, falta zaigu, egiten duten hori baloratzen jakitea eta transmititzea ere bai. Eta beno, ikasi behar dugu, nik uste dut ikasi behar dugula mezuak botatzen, frustraziorik gabe bizitzen euskararen gaia eta ez dakit, nik azkenaldian bueltak ematen eta, azkenean, beti daukagu euskararen inguruko mezu tragiko bat bezala, ez? ez baduzu erabiltzen galduko da eta ai, gaixoa, ez? hilda egongo balitz bezala eta benga, berpiztuta beno. Iruditzen zait asmatu behar dugula mezu positiboak eraikitzen eta bidaltzen eta benetan, buruan eta kontzientzian sartuko diren horiek eta ez betiko “ai...”. Baina beno, poliki-poliki, bagabiltza.

Maialen: Orduan, esan zenezake Atxutxiamaiak ere hezitzaileengan eragiten duela, ez? Esan nahi dut, euskararen erabilerari dagokionean, koadrila horren kasuan eta beste hezitzaileen kasuan ere, zuk esan duzun bezala, egongo da edo badago %100ean euskaraz bizi ez den jendea eta beno, alde horretatik ere eragiten duela, ez?

Naiara: Bai.

Maialen: Eta bukatzeko, zer dauka hobetzeko zure ustetan Atxutxiamaiak lehen aipatutako helburu hori lortze bidean? Lehen aipatu dugu helburua Elgoibarko haur eta

gazteak, beno eta hauen gurasoak ere bai, hauen euskararen erabilera sustatzea edo honetan eragitea dela. Hau lortzeko bidean Atxutxiamaiak badauka hobetzekorik eta baldin badauka, zer da?

Naiara: 2014an idatzi dugu hiru urtetarako plan estrategikoa eta kudeaketa plana eta beno, lehen ere esan dut, baina lehen egiteari garrantziari ematen bagenion ere eta orain ere, ez diogu egiteari laga, baina eragiteari garrantzia handiagoa eman diogu. Lehen aisialdian oso zentratuta geunden eta orain hartu dugun bidea izan da eta oraindik ondorioak ikusteko oso goiz da eta hemendik hiru urtera esango dizut, baina adibidez, ume eta gazteak eskola orduz kanpo egiten dituzten ekintzak edo beno, eragile horiek euskalduntzeari eman diogu garrantzia. Orain artean sortu ditugun proiektu asko izan dira gazteen jarreretan eragiteko proiektuak eta iruditzen zait, jarreran eragiteak ez dakarrela euskararen erabilera. Elgoibarren badaude ezagutzari begirako agente pila bat, ba euskaltegiak, ikastetxeak eta horiek beraien papera egingo dute. Eta iruditzen zait gurea izan behar dela ume eta gazteen errealitate hori eta ez jarrerak, baizik eta errealitatea aldatzeko ba beno, ahalegina edo horretan eragitea. Orduan, horretan gabiz. Gurasoekin ere bagabiltza lanean, ba gurasoen euskara batzordeak sortu nahi ditugu, nahi dugu euskal hiztunengan eragin, euskal hiztunak eta euskara erabiltzen dutenengan eragin, ulertu bai baina hitz egin ez, ez ulertu ez hitz egin... horiengan denengan eragitea nahi dugu eta iruditzen zaigu, ba poliki-poliki pixka bat, aurten pixka bat lortzen badugu beraien buruengan zerbait mugitzea, ba beno, horrek bere fruituak emango dituela eta hemendik hamar urtera, agian, esan dezakegula, ba begira, eman genuen aldaketa honek eman ditu bere fruituak. Baina azkenean, ume eta gazteen eredu eta erreferente garen horiek euskaraz egiten ez badugu, esan nahi dut, umeen helburua ez da euskaraz egitea, helduena da, orduan helduok egin behar dugu.

Maialen: Oso ondo, ba haxe zen dena Naiara.

Naiara: Oso ondo, Maialen.

Maialen: Eskerrik asko!

Naiara: Zuri!

II. ERANSKINA

IMANOL LARRAÑAGA (Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteko dinamizatzailea)

ELKARRIZKETAREN TRANSKRIBAKETA - 2014/07/03

Maialen: Beno ba, Txino, eskerrik asko elkarrizketa eskaintzearren.

Txino: Ez horrela berba egin, ez zait irtengo, barrea baino ez zait irtengo

Maialen: Ez beno, oraintxe esplikatu dizudan moduan, proiektu bat egiten nago HIZNET ikastarorako eta beno, Atxutxiamaikaren eta elkartearen inguruko galdera batzuk egin nahiko nizkizuke. Orduan, hasteko eta behin, zein da zure lana elkarte honetan? Zein da zure egitekoa?

Txino: Hori ez zegoen bidali zenidan gidoian.

Maialen: Beno, baina hori da, *toma de contacto*.

Txino: Bidaltzen dizkit galderak eta gero hasten jata, lehenengo galdera da listan ez dagoen bat.

Maialen: Beno, baina zein da zure lana? Jakiteko! Presentazio lana!

Txino: Orain? Hasieratik?

Maialen: Hasieran zein zen zure lana eta gaur egun zein da?

Txino: Ez, nik uste dut elkarteko dinamizatzaile hasiera hasieratik. Elkarte hau desagertzear zegoen 1990ean eta beno ba, aurretik bi urte inguru egin nituen soziolinguistikaren inguruan, ba Txepetxen bueltan, batez ere. Lehenengo Bergaran eta gero Eskoriatzan urte oso bat berarekin pasatu nuen zapaturu zapaturu eta ikastaro horren edo formazio saio horren ondoren, ba galdera edo lana zen: “orain zerbait praktikoa egin behar duzue” esan zigun Txepetxek; “orain zerbait egin behar duzue, zeren hemen asko jaso duzue eta jaso jaso bota gabe ito egingo zarete orduan, hori nonbaiten eman behar duzue.” Elgoibarrera etorri, Udal euskaltegian nengoen lanean eta orduko Inasiok eta Sebasek esan zidaten ba desagertzear zegoela eta ea zerbait egingo nuen. Baietz esan nien, justu orduan amaitu nuela bi urteko kurtso bat eta nire zeregina zela orain han ikasi nuen guztia nonbaiten praktikan jartzea eta horrela ekin nion pixka

bat Elgoibarko Izarra berregituratzeari. Ordutik gaur arte nik uste dut nire lana izan dela ba pixka bat elkarte honen norabidea edo markatu eta norabidea zaindu, proiektuak prestatu, proiektuak zaindu eta dinamizatzailerik hitza ipini diogu, ez dakit egokia den edo ez, baina beno, esan daiteke pixka bat elkarte honen norabidea markatzeko ardura daukadala.

Maialen: Oso ondo eta atzera eginda pixka bat, elkarte bera hartuta, bere garaian, nola eta zergatik sortu zen Elgoibarko Izarra?

Txino: Elkarre haur sortu zen 1963an Elgoibarrek eta elgoibartarrek sasoi hartan bizi zuten egoera ilun hari argi pixka bat emateko helburuarekin. Euskarari dagokionez eta euskaldunoi dagokionez, sasoi hartan oso egoera txarrean zegoen Elgoibar, Elgoibar eta Euskal Herri osoa. Eta ba bi hiru herriko euskaltzalek esan zuten zerbaitetan hasi behar zirela eta urtebete lehenago sortu zen Ikastola babesteko ere sortu zen batez ere, elkarte. Nik gero hori gero jakin nuen. Pentsatzen nuen elkarte sortu zela lehenengo eta Ikastola elkarre sortu zuela, baina ez. Ikastola urtebete lehenago sortzen da eta Elgoibarko Izarra sortzen da handik urtebetera Ikastola babesteko eta Ikastola indartzeko, batez ere. Baina gero hortik aparte, ikastolako umeen bueltan beste hamaika proiektu sortzen dira. Orduan, zertarako? Egoera ilun hari argi apur bat emateko intentzioarekin. Eta bistan da bazegoela horren beharra, esan dizudan bezala hiru elgoibartarrek sortzen dute, baina elkarte sortu eta bi urtera 1400 bazkide biltzen dira elkarrearen bueltan. Orduan, beraiek esaten zuten, sortzaileak esaten zuten bezala, Elgoibarko Izarra izan zen elgoibartarren euskaltzaletasuna lozorrotik atera zuena, esnarazi zuena, ezta? Bazegoen horren beharra, ez zen inor ausartzen eta elkarte sortu zenean *bum*, hor mugitu zen euskaltzaletasun hori, elgoibartarren euskaltzaletasun hori mugitzen hasten da.

Maialen: Eta egun zein egoeratan dago elkarte?

Txino: Elkarre? Elkarre dago ziklo... 50 urteko ziklo bat amaitzen da. 50 urtean jardun du elkarre honek lanean herri hau euskadunagoa izateko helburuarekin. Lan asko egin da, elkarre honek sortutako proiektuei esker, batez ere, nagusiki eta ez dit inolako lotsarik ematen, orain elkarre barruan daudenak batzuk eta elkartetik kanpo daudenak beste asko. 50 urte hauetan herri honek egin duen euskalduntze garapena neurri handi baten elkarre honi zor dio, baina gure ustez, ziklo bat amaitu da, 50 urteko ziklo bat amaitu da eta orain, ziklo berri bati ekin behar zaio. Egin beharrekoa, egitekoa,

elkartearen egitekoa, bera da. 63an, 63ko eta 90eko bera: Elgoibar euskalduntzea eta herri hau den baino euskaldunagoa izatea. Baina bai estrategiak eta bai egiteko moduak birpentsatzen ari gara, nolabait jasota daude oinarri filosofikoetan eta plan estrategikoan eta orain, ziklo berri hau, poliki-poliki, helburu, jomuga berdiner, baina estrategia eta lan egiteko modu diferenteekin. Eta orain hori, oinarri hori ari gara poliki-poliki jartzen. Herri mugimendu izaera aitortu dio elkarte honek bere buruari eta herri mugimendurik ez dago jenderik gabe eta jendearen parte hartzerik gabe. Orduan, oinarrietako bat bazkideen presentzia eta bazkideen parte hartzea izango da. Eta gainera, hain zuzen ere justu oraintxe gaude lan-talde guztiak antolatu eta jendea taldetan kokatzen.

Maialen: Eta beno, elkartearen baitan, sail ezberdinak daude.

Txino: Bai, lau sail diferente antolatu ditugu. Batetik, idazkaritza eta idazkaritza izango da pixka bat elkartearen norabidea, pentsamendua, formazioa, komunikazioa eta zainduko duena. Gero, ekonomia saila egongo da. Ba batez ere, bigarren erronkari lotuta, hau da, proiektu hau ekonomikoki bideragarri izateko ardura edukiko du ekonomia sailak. Gero egongo da hedabide saila, ba *Barren* komunikazio proiektuaren edo hedabide proiektua garatzeko ardura edukiko duena eta Atxutxiamaiakako lan-taldea, Elgoibarko haur eta nerabeen euskalduntze prozesuan ahalik eta gehien eragiteko ardurarekin. Eta gero, ba pixka bat hori dena biltzen duena edo elkartearen erdigunea hartu nahi duena edo elkartearen bueltan eratu nahi den hizkuntz komunitatearen erdigunea, motorra eta bihotza izango den eremu sinbolikoaren ideia. Datorren astean daukat gainera, hilaren 14an daukagu batzarra. Momentuz, hogeita hamar lagunek edo eman dute izena eta definitu nahi dugu hizkuntz komunitate horren motor eta bihotz eta bizkarrezur izango den horren izaera eta funtzionamendua. Orduan, nik jada prestatuta daukat, baina ez dut nahi nire proposamena bere horretan ipintzea baizik eta nik hori eramango dut eta gero, denon artean erabakiko dugu zer izango den. Orduan, nahi baduzu izan da enborra, eremu sinbolikoa eta gero lau adarrak: idazkaritza, ekonomia saila, hedabide saila eta Atxutxiamaiak.

Maialen: Eta Atxutxiamaiakaren bidetik eta apur bat atzera eginda berriz, zergatik sortzen da Atxutxiamaiak?

Txino: Hori da lehen komentatzen nizuna.

Maialen: Hori da. Eta zertarako? Zein helbururekin?

Txino: Berriz esango dugu, ezta?

Maialen: Bai.

Txino: Hori da. 90ean, 1990ean, Elgoibarko Udalak SIADECORI eskatzen dio ba pixka bat garai hartan Elgoibarrek bizi zuen egoeraren diagnostika egiteko, euskarak eta euskaldunok gure herrian bizi genuen egoeraren azterketa egiteko. Kristoren totxoa egin zuen, azterketa sakona da, herriko atal diferenteak aztertzen ditu, baina guri dagokionez, ondorioetako bat da, Elgoibarko umeen aisialdia eralduna dela eta eskaintza urria dagoela edo oso eskaintza txikia dagoela. Orduan, SIADECOK proposatzen dio Elgoibarko Udalari euskalgintzako etapa berrian edo, eratzea nolabait edo sustatzea Elgoibarko umeen aisialdi euskalduna sustatzeko proiektua preparatzea. Udalak badaki Elgoibarko Izarra ziklo berri bati edo etapa berri baten hasten dela, bigarren etapan eta proposatzen dio ea berak antolatuko duen aisialdi proiektua. Elgoibarko Izarra prest azaltzen da, hasten da hezitzaile talde majo bat prestatzen eta hezitzaileak prest dauzkanean, hasten da poliki-poliki Elgoibarren gure txikienentzat aisialdi proiektu euskaldun bat prestatzen.

Maialen: Eta gaur egun, garai hartan sortu zen hezitzaile talde batekin...

Txino: 96an sortzen da eta gero 96tik gaur arte ez dakit zenbat urte diren edo, gero hori zuk kalkulatu eta proiektu horrek gero garapen bat dauka. Hasten da umeekin, hasten da txikienekin, hasten da txikien aisialdia euskalduna izateko ekintza eta programekin, baina gero noski, gero horrek garapen bat dauka. Besteak beste, txikiekin hasten da eta txiki horiek, urteak aurrera doazen bezala, txiki izateari laga eta nerabe izatera pasatzen dira. Orduan, konturatzen gara, hor segitu behar dugula lanean eta orduan sortzen da GAZ-T programa. Lehenengo Atxutxi da, gero, GAZ-T. GAZ-T bezala, ba sortzen da, baita ere, Elgoibarko gazte koadrilekin lanean, lan egiteko, *Kuadrillategi* programa. Sortzen da baita ere ba kanpotik datozen umeentzako eta euskaraz jarduteko arazoak dauzkaten umeentzako errefortzu programak. Sortzen dira baita ere, familietan eragiteko *Kiribil* bezalako programak. Orduan, ikusten da, 96tik hona, hasieran, aisialdi proiektu soila zena, poliki-poliki garatzen doa eta adar diferenteak irteten dira. Eta gaur egun, ziklo 50 urteko ziklo hau amaitzen da, hor daude programa mordo bat ez dakit orain erantzun beharko dizudan edo gero galdetu beharko didazun berriz, hasten da orain, ziklo berri honetako Atxutxik beste jite bat hartzen du, beste itxura bat hartzen du

eta lehen txikienentzako aisialdi proiektua zena, orain Elgoibarko haur eta nerabeak euskalduntzeko edo horien euskalduntze prozesuan laguntzeko proiektu integral bat bihurtzen da. Zein egitasmo diferenterekin? Lau programarekin. Batetik, aisialdi programa edo proiektua mantentzen da, hasieran zen hura, espirituari eusten zaio, baina beste hiru neba-arreba sortzen zaizkio inguruan. Familia plana edo *Kiribil* deitzen dioguna, Elgoibarko familietan... ez, Elgoibarko familietan ez, haur txikien familietan eragiteko proiektu bat. *Gurean bai, Gurean bai* programa haur eta nerabeekin lanean diharduten elkarte eta eragileengan eragiteko programa espezifiko bat. Sei erakunderekin hasiko gara, baina intentzioa da ahalik eta gehien inplikatzeari hor eta azkena, ikastetxeetan, nerabeengan, nerabeen kontzientzietan eragiteko daukagun programa txikitxo bat. Orduan, 96an, aisialdi programa bat zena, txikienentzako aisialdi programa bat zena, ez dakit zenbat urte pasatu eta gero, ziklo berria abiatzen da haur eta nerabeak euskalduntzeko lau adarreko proiektu integral batekin.

Maialen: Hori zen hurrengo galdera eta beraz, erantzun duzu, primeran. Hau da, “nola definituko zenuke gaur egungo *Atxutxiamaika*?”.

Txino: Hori da nahi duguna.

Maialen: Lortu nahi dena.

Txino: Gaur egun, 50 urteko zikloa eta gero, gaur egungo *Atxutxiri* forma hori eman diogu eta egiteko hori eman diogu. Egiteko nagusia da, haur eta nerabeak euskalduntzea edo Elgoibarko haur eta nerabeen euskalduntze prozesuan gure ekarpena egitea eta aurrera egitea, lau programa diferenterekin.

Maialen: Orduan, aipatu duzu helburuetako bat, beno, *Atxutxiamaikaren* kasuan, dala haur, nerabe eta gazteen euskararen erabileran eragitea. Lortzen duela uste duzu? *Atxutxiamaikak* lortzen duela? Hau da, sumatu duzu hartzaileengan, haur, nerabe, gazte eta hauen gurasoengan, euskararen erabileran eragiten duela *Atxutxiamaikak*.

Txino: Begira eta zuri konfiantza guztiarekin esango dizut eta ez dakit grabagailua hor dagoen ala ez. Zuk niri hori galdetzen didazu eta esaten dut: 96tik hona egin dugu horren gaineko baloraziorik? Eta erantzuna da *no*, erantzuna da ez, ez da egin. Nik esan dizut lehen, egindako lanaren *Atxutxiamaikari* dagokion partea pasatuko dizut, baina balorazio hura inpresio eta sentsazioen gainean jasotako zerbait da. Egin ahal da hori? Ba seguru, baietz. Nola? Ez dakit. Eta hemen ez da inor dedikatu horretara. Noizbait

dirua lortuko bagenu *Astiker* bezalako ikerketa zerbitzu enpresa bati eskatu ahal diogu *Atxutxiren* eragina zein den neurtzeko? Baliteke. Ez da egin. Orduan, sentsazioekin berriz ere jarraitu beharko genuke eta sentsazioak, bi ataletan hartzen badugu edo bi-hiru adar hartuta, hauek dira: Umeengan eragiten dugu? Nik horri ezin diot erantzun. Hori hezitzaile izan zaretenok eta hezitzaileek erantzun beharko lukete. Edo ume horien gurasoengana joan beharko ginateke euren seme-alabengan, Atxutxitik pasatu eta gero, aldaketarik igarri duten edo ez jakiteko. Nik hori ez dut egin, orduan, nik ez dudana egingo da baietz esan. Pentsatzea nahi dut, okerrera behintzat ez duela egin. Umeak *Atxutxirekin* dabiltzanean, pentsatzen dut zerbait jasoko dutela eta hori euren baitan geratuko dela eta gero hori, momentuan ez bada ere, hor geratzen dala eta gero horrek izango duela beraien garapenean eragin bat. Baina horiek dira sentsazioak. Nik ez daukat daturik eta ez dago ikerketarik horri erantzuteko. Hori umeengan. Gurasoengan, nik hemen ikusten ditut etortzen direla hona eta gustura etortzen direla euren seme-alabak hemen apuntatzera. Baten batzuk eurek lanera joan ahal izateko ere ekarriko dituzte seguruena, nonbaiten kateatzearen. Beste batzuk, pentsatzen dut, sinistuta egiten dutela eta sumatzen ditut guraso erdaldunak, beraien seme-alabek behar dute euskaratik ez aldentzea ikastetxetik irten eta gero eta badakit, hau dela euren seme-alabak erdaran ez murgiltzeko daukaten ihesbide bat edo arnasmune bat. Pentsatzen dut horiek zerbait sinistuta etortzen direla hona. Eta gero, nerabeengan eta gazteengan, beti eduki dugun problema bat: umeekin lan egitea errazagoa da nerabe eta gazteekin baino. Bai *Kuadrillategik* eta bai *GAZ-Tek* ez zuten funtzionatu guk nahi genuen bezala. *Atxutxi* beti baloratu izan da ondo, baina esan dizudan bezala, inongo neurketarik gabe eta inongo balorzio tekniko edo zientifikorik gabe, ez dakit nola esaten den hori. Baina nerabe eta gazteena, hori gabe ere, igartzen dugu, zailagoa dela eta horiek erakartzea zailagoa dela eta umeak errazago apuntatzen direla, baina nerabeak gutxiago eta gazteak are eta gutxiago.

Maialen: Eta *Atxutxiamaikak*, berriz helburuari helduta, daukat helburua kontuan hartuta...

Txino: Orain ala sortu zenekoa?

Maialen: Ea, hartuko dugu helburu moduan...

Txino: Bai. Zein hartuko dugu?

Maialen: Haur, nerabe eta gazteen euskararen erabileran eragitea.

Txino: Oraingoa, orduan? Ziklo berrikoa orduan? Ez aisialdikoa?

Maialen: Euskararen erabileran eragitea.

Txino: Baina ez aisialdian bakarrik.

Maialen: Kasu honetan, aisialdiari begira egongo ginateke.

Txino: Lehengoari begiratuko diogu orduan.

Maialen: Bai. Eta hezitzaileei begiratuta, nahiz eta zuk pentsatu agian, urrutiagoa geratzen zaizula adibidez, niri baino hori, ni hezitzaile banaizelako. Baina zuk kanpotik begiratuko bazenu horrelako egitasmo bat, hau da, *Atxutxiamaika* moduko talde bat ikusiko bazenu eta bertan hezitzaile talde bat dagoela, hezitzaile talde horren perfila zein izan beharko litzakeela uste duzu?

Txino: Perfila. Perfila sartzerakoan ala gero, sartu eta hilabete batzuen ondoren edo urte batzuen ondoren edo irteterakoan nola irten behar den pertsona hori?

Maialen: Minimo batzuk. Ea, pertsona guztiak aldatzen gara eta esan nahi dut, horrelako egoera baten gaudenean edo horrelako egitasmo baten parte hartzen dugunean, eragina badauka gugan eta azkenean, gu geu, pertsona moduan ere, aldatzen gara. Baina, egia da...

Txino: Batzuen kasuan.

Maialen: Bai, pentsatuko dugu baietz.

Txino: Eragina oso diferentea da, uste dut. Zuk jakingo duzu hobeto, baina eragina, nik pentsatzen dut, hezitzaileen kasuan hau ulertzen nuen eta gai hau berriz irtetera doa proiektuen ziklo berrian eta apuntatuta dago, paperetan apuntatuta dago. Nik uste dut helburua haur eta nerabeak euskalduntzea dela, baina hezitzaileen papera, funtzioa, ez dakit nola esan, niretzat klabea da. Zeren helburua beste bat izanda ere, proiektu honetan lan ondo egiten badugu, hezitzaile horiek ere gure hizkuntz komunitatera erakarri beharko genituzke eta orain arte nire zalantza handiak dauzkat. Eta hori jasota daukagu balorazio lanean. Hezitzaile horiek Elgoibarko Izarraren bueltako hizkuntza komunitatera baino, *Atxutxiko* parte izan dira, baina hori baino ez dira izan neurri handi

baten. Gero bazaudete salbuespen batzuk, *Atxutxiko* hezitzaile ez ezik Elgoibarko Izarrako kide ere izan zaretenak edo bazaretenak. Baina gehienak izan dira *Atxutxiko* hezitzaile. *Atxutxiko* hezitzaile izateko zer behar da? Hasiera baten, badirudi, eskatu beharko litzatekeela, euskalduntasunarekiko sentsibiltate minimo bat eta gero, umeein lan egiteko prestutasuna. Eta ez dakit titulua eskatzen duzuen lanean hasi aurretik edo ez. Jo dezagun, gaitasun edo prestutasun gutxieneko bat. Orduan, gaitasuna, gaitasuna formazioari dagokionez, euskalduntasun minimo bat eta umeein lan egiteko interesa, ez? Hori sarreran. Baina gero, bidean aurrera joan hala, nik uste dut euskalduntasun hori garatzen joan beharko litzatekeela eta konturatu beharko litzatekeela hezitzaile hori aisialdi proiektu bateko kide bakarrik ez dela. Herri hau euskalduntzeko proiektu bateko kide edo parte inportante bat dela. Eta euskalduntasuna hori garatzen joan beharko litzateke. Uste dut gero galdera hori badatorrela. Hezitzaileengan eragin du proiektu honek? Zuk erantzungo duzu hori nik baino askoz hobeto eta nik maila horretatik ikusi dudana, nik nahiko nukeena baino gutxiago. Batzuk bai, hezitzaile batzuk konturatu dira edo ikusi dute eta kontuz, hori ez da beraien errua. Hori izatekotan, inoren errua izatekotan, elkartearena da eta elkarteak hori zaindu ez duelako da eta ziklo berrian hori hor dago zeregina bezala eta ez ahazteko puntu bezala. Jende hori, hezitzaile horiek, nik uste dut, *Atxutxiko* langileak izan dira, batzuk beste batzuk baino finago lan egin dute. Atzo etorri zitzaidan ama bat esaten hezitzaileak euren artean erdaraz harrapatzen dituela kalean. Hori, pentsatzen dut, 96tik hona horrela izan dela eta hemendik aurrerantzean ere horrela izango dela, baina nik nahiko nuke hezitzaile talde horretako masa bat, *Atxutxiko* hezitzaile ez ezik, elkarte honetako kide ere sentitzea eta euskalgintzaren parte sentitzea. *Atxutxitik* hasten dira, suabe-suabe, baina gero esatea “ui, hau, ni hemen egiten ari naizena ez da umeein lan egitea bakarrik, hori baino zerbait gehiago da”.

Maialen: Eta zuk orduan, zuk esan duzun moduan, oraintxe zetorren galdera, hezitzaileen egunerokotasunean, beno, badaude batzuk euskaraz bizi ez direnak. Hori errealitate bat da. Perfil ezberdinak daude.

Txino: Euskaraz bizi ez diren hezitzaileak daude?

Maialen: Euskaraz bizi ez direnak beraien egunerokotasun osoan. Esan nahi dut... oso zaila da, %100ean ez dugu berba egingo, ia ezinezkoa delako; komatxo artean jarriko dugu.

Txino: Bai.

Maialen: Baina beno, badaude batzuk erdaldunagoak direnak esango dugu.

Txino: Eta horiek, jende hori zertarako apuntatzen da? Zergatik apuntatzen da? Zertarako? Zergatik apuntatzen da? Udako paga da?

Maialen: Alde batetik, arrazoi ekonomikoa dago, nahiko pisu handia duena.

Txino: Hori beti?

Maialen: Ni Atxutximaikan sartu nintzenetik... sartu nintzen urtean ez horrenbeste, hori egia da edo nik behintzat, ez nuen horrelakorik sumatzen. Gaur egun bai eta pisu handia dauka.

Txino: Pagak?

Maialen: Bai. Arrazoi ekonomikoak dauka pisu gehien batzuen kasuan. Askotan eduki izan dugu eztabaida hori, zeren jendeak esaten du “joe, ba ez da horrenbeste (kobratzen)”.

Txino: Hori eurekin?

Maialen: Beno, irten zen azkeneko hausnarketa moduko saio batzuk egin genituen, Ainhoa egon zen dinamizatzailer paperean eta hor atera zen ondorioetako bat hori izan zen.

Txino: Hori jendeak aitortu egiten du zintzo?

Maialen: hori ere badela bai. Esaten du eta ikusten da.

Txino: Baina eurek ez dute ezkututzen.

Maialen: Ez eta nik esan nezake beste helburu batekin izena eman genuenontzako ere bai alde positibo bat badela gaur egun. Ekonomia, diruari begiratuta irabazi bat edukitzea danontzako da positibo.

Txino: *Por supuesto.*

Maialen: Dena dela, egia da, batzuk gehiago begiratzen diotela horri beste batzuk baino.

Txino: Kontua ez da horri begiratu behar zaion edo ez, horri bakarrik begiratzen diodan baino.

Maialen: Nik ez dut uste horri bakarrik begiratzen dion hezitailerik dagoenik eta egotekotan, bi egongo dira? Ez dakit, esan nahi dut, hau ere nire pertzepziotik e. Ni hezitzaile moduan orain dela zortzi urte sartu nintzen eta gauzak asko aldatu dira zortzi urtean. Jende berri asko sartu da, garai baten oso talde finkoa zegoen, beno, agian aldaketa txikiren bat bazegoen, baina gaur egun, egia da *Atxutxiamaikan* badaudela hezitzaileak elgoibartarrak ez direnak. Horrek alde batetik eragina dauka. Beste alde batetik...

Txino: Beno, eragina. Azpeitiar bat etortzen bada, izan daiteke eragin positiboa ere.

Maialen: Bai, bai.

Txino: Eragina ematen du txarrera.

Maialen: Ez, ez, ez. Eragina esan nahi dut taldean, ba bai funtzionamenduan eta baita izaeran, horrela, *a grosso modo* esanda, eragina dauka.

Txino: Bale.

Maialen: Eragina dauka, ba zuk esan duzun bezala Azpeitiko jendea etortzeak, Eibarkoa, Soraluzekoa... Adin tarte oso ezberdinak daude. Bagaude, ni adibidez orain dela zortzi urtetatik nago hemen, baina badago jendea aurten sartu dena. Batzuentzako oso berria da.

Txino: Kolokatzen ariko dira.

Maialen: Hori da. Orduan, guzti hori batzen du *Atxutxiamaikak* eta udaldian gehiago konplikatzen da. Zergatik? Urte guztian lanean gauden talde hori zabaltzen delako eta udaldian bakarrik lan egiten duen jendea dagoelako.

Txino: Jende asko sartzen da.

Maialen: Orduan hor, lan ezberdinak daude. Urte guztia daramagunak, pentsatzen dut, lanean eredu izan behar garela pertsona horiekiko, askotan ez dena gertatzen. Eta zuk esan duzun helburuari begira, hau da, *Atxutxiamaikak* nahi baldin badu

euskalduntasunean eragin, nik uste dut eta zurekin bat nator, *Atxutxik* egin behar duela hezitzaile eredu berriak eduki lan taldean. Ni ez naiz balorazioetan sartuko.

Txino: *Klaro*, ezin duzu. Pasatzen dena da, zuk nik baino hobeto erantzun ahal diozula galdera horri edo Naiarak. Nik ez dakit, hezitzaileen gaineko baloraziorik egiten ez dakit.

Maialen: Ez balorazioa, nik nahi nuen jaso gehiago pertzepzioa zein den. Pertzepzioa elkarteko langile zaren aldetik eta dinamizatzaile paperetik, zuk ezagutzen duzun gaur egungo *Atxutxiamaikan* parte hartzen duten hezitzaileak zein perfil izan beharko luketen eta horrez gain, zer den ikusten duzuna.

Txino: Niretzat, zein perfil eduki beharko luketen baino, askoz inportanteagoa iruditzen zait zer lortu beharko genukeen jende horrekin.

Maialen: Elkartearen aldetik, zer nahi dugun hezitzaile horiek...

Txino: Bai, elkartearen aldetik, hemen sartzen diren hamabi laguneko hezitzaile talde bat, berriak izanda ere eta hemen lan egitearen ondorio bezala, zer lortzen den jende horrengan. Hau da, euskalduntasunean finkatzen diren, *Atxutxin* ez ezik elkarte bateko langile ere badirela sumatzea, komunitate bateko kide direla sentitzea, komunitate horretan zein paper duten sumatzea, etab. Sartzearen arrazoia? Ez da hain inportantea zein perfilekin sartzen diren, baizik eta zein perfilekin irteten diren edo zein perfilekin dauden *Atxutxiamaikan*.

Maialen: Bai, bai, ados.

Txino: Orduan, baten bat sartu daiteke diruarengatik bakarrik, baina gero, bidean aurrera doala, esatea bere buruari: “Ostia, ba ni hemen nago. Diruagatik bakarrik sartu nintzen, baina begira ze gustura sentitzen naizen umeekin lanean eta gainera, konturatu naiz, hala esplikatu didatelako eta ikusi dudalako nik egunerokotasun horretan, zein inportantea den nire papera ume hauen euskalduntze prozesuan, gehi gurasoekin, gehi elkarte bateko kide bat gehiago bezala.” Eta nire zalantzak dauzkat hori prozesu hori 96tik hona pasatu diren hezitzaile guztiak kontuan hartuta, ehuneko oso txikiak egin duela garapen horren sentsazioa daukat.

Maialen: Eragin, esan nahi duzu euskalduntasunean...

Txino: Elkartearen integratzearena, bere lana kokatzearena teorikoki, soziolinguistikaren ikuspegitik bere lana zein dan kokatzea... Batzuk umeeekin lanean dabilta udan eta hortik kanporako horren bueltan dagoen arrazoiak eta ez dakit nik jasotzen duten edo hortaz jabetzen diren ere ez.

Maialen: Hori baina, agian gehiago, euskalduntasunari begira. Eta egingo bagenuke berba euskararen erabilerari dagokionean...

Txino: Nik ezin ditut bereizi horiek. Niretzat bat da. Euskararen erabilera hori benetako bada, sana baldin bada, hor euskalduntasunean eragiten ari zara. Hor euskalduntasuna lantzen ari zara. Ez dago euskararen erabilera sanorik euskalduntasunari lotuta ez dagoena. Hori bat da.

Maialen: Orduan, ez zenuke esango ehuneko handi baten *Atxutxik* eragiten duenik hezitzaile horiengan; *Atxutxik* e.

Txino: Eta elkarteak. Kontuz, ez nago *Atxutxiri* kulpa botatzen.

Maialen: Ez, ez, ez kulpa, baizik eta zehazte aldera.

Txino: Ez dut esaten *Atxutxiren* hutsune bat dela, elkartearen hutsune bat da eta hori Naiarari nik esan diot. Lortu behar dugu *Atxutxiko* hezitzaileak elkarre honetako kide izatea. Zeren ez ditugu behar *Atxutxirako* bakarrik, ez. Atxutxi da erreminta bat elkarterako, erreminta bat herria euskalduntzeko, erreminta bat komunitate bat osatzeko; lehenengo, elkartearen bueltan eta gero, herri mailakoa. Hezitzaileak ezin dira izan proiektu honetako parte, jo dezagun, *Barren*-eko banatzaileak bezala. Eta nire helburuetan eta paperera ez dugu horrela pasatu, *Barren*-eko banatzaileak gure komunitatean integratzearena, ba lan oso espezifikoa delako, hezitzaileek hori helburu hori ipini egin behar dute. Hori Naiarari exijitu egin behar diot. *Atxutxiko* hezitzaileak proiektu honetako parte izan behar dira.

Maialen: Orduan, hori identifikatuko zenuke *Atxutxiri* begira, hobetzeko gauza?

Txino: Hori, pasatzen dizudan dokumentuan, hori hutsune bezala identifikatuta dago eta jasota dago; hezitzaileak ez direla proiektu honetan integratu, ez ditugula proiektu honetan integratu. Eske ematen du batzuetan euren hutsune bezala dela eta ez, ez, ez, hutsunea elkartearena da, ez euren. Ni egon naiz hezitzaile horiekin? Hezitzaile horiei esplikatuz zaie hau zer den? Ba Naiarak esaten dit baietz. Baina gauza bat da lehenengo

egunean esplikatzea, baina gero, hori garatzen da? Lantzen da? Ez dut esaten denekin. Batzuekin, batzuk udan egongo dira edo Eibarkoak edo Plaentxikoak dira eta agian, horiekin ez da lan espezifikorik hori egin behar, baina herrikoekin... Hau da, *Atxutxitik* pasatzen dira eta ez dira enteratzen elkartea hor dagoenik ere edo *Atxutxi* elkartearena denik ere. Kaxaren baten edo kamisetaren baten bila datozenean ailegatzen dira Elgoibarko Izarrako ateraino, baina hortik aurrera “a, hau Elgoibarko Izarrarena zen?”. Niretzat hori hutsune bat da.

Maialen: Eta horrez gain, *Atxutxiamaikak* lehen aipatu dugun helburu hori lortze bidean, beste hobetzekorik badaukala uste duzu? Esan nahi dut, hau erronketako bat bada, elkartearen aldetik identifikatutako erronketako bat da, ikusten da, elkartetik edo zeure paperetik ikusten duzu, *Atxutxiamaikak* badaukala beste egitekorik? Hau da, hobetzekorik badaukala?

Txino: Hor begiratu egin beharko nuke zer jasota dagoen eta zuri ez dizut disimulatuko; hura txosten hura buruz ez daukat ikasita. Lehen esan dizutena ere izan daiteke: egin denaren baloraziorik ez da egin.

Maialen: Hori *Atxutxiamaikaren* gainean, baina *Atxutxiamaikak* gaur egun, *Atxutxiamaikak* taldeak berak hobetzekorik duela uste duzu? *Atxutxiamaikak* berak, hezitzaile taldeak.

Txino: Taldea?

Maialen: Bai, taldeak berak, egitasmoak, *Atxutxiamaika* egitasmoak berak hobetzekorik dauka? Hau da, eskaintza zabalgoa egin beharko luke, adibidez? Beste esparru batzuetan eragiten ahalegindu beharko litzateke?

Txino: Puf. Nik uste dut hartu ditugun lau esparru hauekin gehiagorako ezin dugula guk. Eta *es mas*, lau hauek ere bi liberatu eta horrekin, nahiko lan. Horiek ondo egiten baditugu, nik uste dut lan eremu handiagorik ez dela komeni. Lau horiekin, hau da aisialdia, eragileengan, familian eta nerabeetan eragiten asmatzen badugu, txapela kenduko dut. Egin behar duguna bakoitza, nik uste dut, orain arte ekintza solteetan gehiegi oinarritu garela. Badago proiekturik? Badago plangintzarik? Nik uste dut gehiago izan dela ekintza solteak eta, ez? Baina beno, hau Naiarekin horrela esan gabe eta kontuz, badakit nik dokumentuak eta badaudela, baina agian, askotan, ekintza

solteek pisu gehiegi eduki dute, ezta? Orain ez. Orain ziklo berrian nik uste dut lau *kajoiak* ondo bereizita daude eta orain